

puntuua



LAURA MENDIZABAL ARKAUZ

2019KO KORTA SARIAREN IRABAZLEA

ERREGAI-HORNITZAILEEN

ESPARRUAN LEHIAKOR

IZATEN JARRAITZEKO

GOGOAREKIN



PUNTUA 215

2019-11-22 EGUBAKOITZA

Azaleko argazkia:
Sea Arabako Enpresak.

Aurkibidea

- 4 **Bat-batean** Amaia Uribe
- 6 **Irudiz** Handitasunean txiki
- 8 **Mundutik** Malta: Errumaniatik
Maltara salto
- 10 **Erreportajea** Trukean oinarritutako
kontsumoa
- 20 **Elkarrizketa** Laura Mendizabal
Arkauz, 2019 Korta Saria
- 24 **Osasuna** Koltxoi on baten bila
- 26 **Kirola** Santamasetako padel
txapelketa
- 28 **Adituen esanetan** Teknologia,
adikzio
- 30 **Otorduan** Unzueta sagardotegia:
txotx aukera urte osoan
- 32 **Moda** Cowboy botak
- 34 **Motorra** Iñigo Errasti, Euskadiko
txapelkun rallysprinteko 3 Mailan
- 36 **Gure artistak** Olatz
Muruamendiaraz bergararra
- 38 **Kultura** Xabier Sagasta Lacalle
marrazkilaria
- 40 **Liburu artean** *Ametsondoan*

- 42 **Gure altxorrak** Bergara: Errege
Mintegia
- 45 **Teknomania**
- 46 **Handitzen, handitzen** Plazan
Bazan
- 47 **Jaioberriak**

IRITZIA

- 3 **Nire txanda** Jon Sagarazu *Hesian*
- 16 **Hainbat aburu** Naroa Elortza
Gorrotxategi *Zaintza zainduz*
- 16 **Eztabaida** Lan-astea lau egunera
murriztu
- 17 **Xixili** Helena Azkarragaurizar
- 17 **Errematea** Mikel Muxika
'Indarraren arrazoia' -ren indarra
- 18 **Talaiatik** Iñaki Barrutia Arregi
*Teknologiaren abiadura eta
hezibidea*
- 44 **Komunikazioa** Maialen Arratibel
'Spin doctor' -a

puntua

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

TOKIKOM

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Aitor Izagirre
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal
Zuzendaria
Eneko Azkarate

Erredaktore burua
Monika Belastegi
Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate
Publizitate arduraduna
Mireia Larrañaga
Kluba eta banaketa
Igone Osinaga
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza

Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza
Martin, Amaia Mundiñano
Administrazioa
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezibar,
Iraxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kubxa
Tel.: 943 25 05 05
berriak@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

Lege Gordailua:
SS-1509-2014
ISSN: 2443-9738
Tirada: 4.100 ale

Inprimategia:
Gertu Komunikaziobide SL

PUNTUA ez du bere gain
hartzeko aldizkari honetako
orrialdeetan
kolaboratzaileek
adierazitako iritzien
erantzukizunik.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Hesian



JON SAGARAZU

I 989ko azaroaren 9ko ilunkera zen. Telebista piztuta zegoen, eta sasoiari emititzen zuten hiruzpalau kateetan irudi berdinak ikusten ziren: jendea, kaleko jendea, zahar eta gazteak, bikote eta kuadrilla, algaran denak, saltoka edo dantzan, elkar besarkatzen, txoratzen denak, irriz ospatzen. Haien atzean, horma zatar, zikin, pintatu bat apurtzen eta eraisten ari ziren. Botatzen zuten pareta-puska bakoitzarekin jendearen zoramena oldartzen zen. Hesi haren hondakinen gainean dantzan elkar besarkatzen zuten. Nire gurasoak, zirkinik, hitzik egin gabe, pantailari itsatsita zeuden. Nik, nire jolas-txokotik, azalpenik gabe ulertu nuen hura arrats solemne, historikoa zela.

Berlingo Harresia erori zenetik joan diren hiru hamarkadotan, Europar Batasunaren eraikuntza-ibilbidea grina biziz jarraitu izan dut. Arrats urrun hartan gurasoek ume-hizkeran azaldu zidaten jende artean mugak kentzeak, oztopoak apurtu eta pertsonak elkar aurkitzeak duen funtsezko balioa ez dut inoiz ahaztu, ezta zalantzan jarri ere, ezergatik ez. Aitzitik, mugaketek eta itxierek gizartea zauritzen eta zartatzen dutela ikusi dut, nire begiekin, gure Europa zaharretik atera gabe, gure herrian bertan. Zatiketaren orbain mingarri gehiegi daramatzagu denok bihotzean adibiderik gehitu behar izateko.

Egun, europarrok, gure tradizio liberalean eroso, salatu ohi ditugu munduan oraindik dirauten muga tragikoak: Trumpek Mexikon eraiki nahi duen Hesi Handia, Israel-Palestina apurtzen duen Lotsaren Harresia, edo Korea bitan zartatzen duen muga hilgarria. Erraz ahazten dugu guk geuk Mediterraneoan itxi egin dugula alderik alde, muga juridiko ikusezinez; Turkian errefuxiatuei itxi nahi izan diegula bidea oztupoz betez; edo Ceuta-Melillan etorkinengandik babestu kontzertinatuko hesiez. Etxean banaketa eskatzen duten mugimendu antieuroparrak, eta abar, eta abar oroitzera sartu beharrik ez.

Alemaniarrek *schutzwall* hitzaz izendatzen dute hau guztia: *babes-hesia*, hurkoarengandik babesteko ezarritako muga hertsia, besteak demonizatuz gure beldurrek eraikiak. Europarrok ez ote gara oraindik ohartu, ni txikitan bezala, mugek zartatzen dutela gure kontinentea? Bide luzeegia egin dugu elkarrengantz, orain atzera egiteko! Europar gizartea eraikitzen jarraitu behar dugu, egun gure artean dirauen muga oro eraitsiz: hauek erortzean elkar aurkituko dugu, anaiartearen, lehen banantzen gintuzten hesien hondakinen gainean, dantzan. ■■■

**BIDE LUZEEGIA
EGIN DUGU
ELKARRENGANTZ,
ORAIN ATZERA
EGITEKO!**

Amaia Uribe

TXOMIN MADINA

ARGAZKIA: A.A.

Kazetari bizkaitarra 2018ko urtarrilaren 31n heldu zen New Yorkera, eta hurrengo egunean ekin zion EITBrentzako berriemaile lanak egiteari.

New Yorken korrespontsal. Kazetari askok euren curriculumean gurako luketen lerroa da hori!

Hemen egotea beti izan da egia bihurtzerik espero ez nuen ametsa. Amak dio oso txikia nintzenezan ispilu aurrean egoten nintzela, koilara bat eskuan, "New Yorketik berriemaile, Amaia Uribe" esaten. Proposatu zidatenean duda asko izan nituen, familia osoak etorri behar zuelako: seme bat dut, senarrak lana utzi behar zuen... Gau askotan loa kendu zidan erabakia izan zen. Baina pentsatu genuen damutzekotan, hobe zela etorri ginelako izatea, ez etorri ez ginelako. Ia bi urte igaro eta gero, ez naiz inondik inora ere damutzen.

Duen, edo ematen diogun garrantziarekin, Ameriketako Estatu Batuetan (AEB) albistean bila joan behar izaten duzu, ala berez datoz? Ezin da sinistu Trumpekin zelako albiste bolumena dagoen; gaiak baztertzen ibiltzen gara sarri, edo albistegi berean bi gauza ezberdin kontaktzen ditugu. Zuen ordutegiarekin egiten dut lan: 05:00etan hasten naiz lanean, eguerdiko albistegirako; gauekorako, beste bat egiten dut; askotan, gauez beste bat gai bat lantzen dut hurrengo egunerako.

Zenbateraino aldatu duzu AEBekiko iritzia han bizi zarenetik? New York, turista moduan, era batera ikusten da; baina hemen bizita, gogorra da egunerokoa: etxeoketiko distantzia, burokrazia... Baina bere alde ona ere badu: denetarik duzu, eta mundu osoko jendea aurkitu dezakezu. Nire semeak, esaterako, kolore guztietako lagunak ditu eskolan, baina berak ez du kolorerik ikusten; hori aberasgarria da oso. Baina New York burbuila bat da, hemendik irten behar duzu benetako AEBak ikusteko. Asko, ulertzen ez ditudanak: Trumpen jarraitzaileak, oso armazaleak diren euskal jatorriko estatubatuarak, urtero egoten diren ehunka tiroketarekin kezkatzen ez direnak, heriotza-zigorak duen babesa...

New York: betirako geratzeko moduko hiria, ala ez? Ez. Ez dago Euskal Herria modukorik, eta, kanpoan bizita, gehiago baloratzen dituzu normalean baloratzen ez dituzunak. Hiri honekin maiteminduta nago, baina argi daukat itzuliko garela: horko bizi kalitatea itzela da.

Nola egiten diozu aurre herriminari? Hemen baditugu lagun euskaldunak, eta, herrimina sentitzean, gehiago elkartzen gara eurekin. Baina ondo daroagu; gainera, urtean pare bat aldiz joaten gara Euskal Herrira. Dena den, kontziente naiz hau sekulako aukera dela, zenbat iraungo duen ez dakidan abentura, eta ahalik eta gehien aprobetxatzen saiatzen naiz.

Eguna heltzen denean, zein aholku emango diozu zure postua hartuko duen hurrengo kazetariari?

Momentu bakoitza gozatzeko. Egongo dira une gogorak, egun txarrak, zeinetan ez dakizun zertan zabilten hemen. Baina New Yorken korrespontsala izatea jende oso gutxi duen aukera da, pozik egoteko modukoa, eta esango nioke duen onena emateko.

EITBko lanaz gain, Ttap aldizkari digitalean zutabegile zara. Normalean isildu behar izaten dituzunak esateko modua?

Bai. Ez dakit kasualitatea den, baina zertaz idatzi pentsatzen jartzen naizenean, AEBetako kontuak datozkit burura, telebistan esan ohi ez ditudanak: ze arazo ematen dituen medikuarengana joateak, nola elikatzen diren hemen... Zutabe horretan deskargatzen ditut nire hemengo arazoak; hor azaltzen ditut hemen harritzen edo txokatzen nauten gauzak. Baina, badaezpada ere, berriz azpimarratzen dut hemen oso pozik bizi naizela!
Zeini edo zeri bota diozu azken bertsoa? Aurreko egunean, semeari aritu nintzen bertsoan, bertsoaritzaz zer den azaltzen. Ondo dago hemen ingelesa eta horrelakoak ikastea, baina jakin dezala nongoa den; ez dugu gura, inondik inora ere, hori galdu nahi. Hemen igartzen ditu faltan bertso saioak; ni neu oholtza gainean bertsoan aritzea eta txapelketak ez hainbeste, baina bai bertso munduaren bueltako beste guztia. ■



Handitasunean txiki

ARGAZKIA: LANDER MARIJUAN

TESTUA: IMANOL BELOKI

Mendizale batentzat mendi tontor batera igo eta paisaia zoragarriaz disfrutatzea baino hobirik ez dago. Egunsentia edo ilunabarra leku pribilegiatutik ikusteak ez du preziorik, eta, nola ez, bistak izugarriak badira, lelotuta geratzen da bat paisaia ikuskatzen. Lortzen den gogobetetasunak ez du parekorik, eta bidearen nekea eta buruan bueltaka izaten diren arazoak ahaztu egiten dira une labur batez. Zoriontasun momentu bilakatzen da. Eta, horretarako, haitz baten tontor gainetik handitasunaren ikuspegia txikitasunetik lortu behar da, ez dago besterik.

Hori irudikatu eta transmititzen du Aloña Mendiko mendi Sailak antolatutako XVI. Mendia eta Natura argazki lehiaketaren barruan *Gizakia mendian* ataleko lehen saria irabazi duen Lander Marijuan bilbotarraren argazkiak. ■■■





Errumaniatik Maltara salto

MALTA



AINARA BORDES MALTAN BIZI DEN
ARRASATEARRA
ARGAZKIAK: 'ERASMUSPLUT.IT'

PUNTUA aldizkariaren ataltxo hau jarraitzen duzuenok ondo jakingo duzue Errumaniari ia bi urte bizi izan ostean irailan agur esan niola herrialde zoragarri horri eta abentura berri batean murgildu nintzela. Malta izan da nire helmuga berria.

Aldaketa itzela izan da. Herrialde dibertso eta handi batetik –238.391 km²– bost uharte txiki osatutako estatu batean murgildu naiz batean –316 km²–. Ezagunagoa izan daitekeen konparazio bat egitearren, Gipuzkoa –1.997 km²– baino sei aldiz txikiagoa da Malta. Tamainaz gain, pasaiaren, kulturaren eta eguraldiaren aldetik ere aldaketa nahiko bortitza izan da. Errumaniako eguraldi kontinentaletik Maltako eguraldi mediterraneora mugitu naiz; Karpatoetako mendi eta Danubio inguruko zelaietatik Maltako itsaso, hondartza eta lautada lehorretara; eta Europa ekialdeko kultura batetik Europa hegoaldeko kultura mediterraneo italiar-arabiar-feniziar batera.

Aldaketa honi hasiera borobila emateko ahaleginetan, gaurkoan Maltaren inguruko ikuspegi orokorra ekarri nahi izan dut paperera. Non dago Malta, eta

zein da bertako kultura eta bertako jendearen jatorria?

Hasteko, Maltako Errepublika Mediterraneo erdian kokatzen den artxipelagoa du. Iparraldean Sizilia (Italia) dauka, mendebaldean Tunisia eta hegoaldean Libia. 1964tik estatu independentea izanik, Europar Batasunean 2004an sartu zen. Bost uhartek osatzen duten artxipelago hau munduko hamargarren estatu txikiena da eta, aldi berean, kilometro karratuko biztanle gehien daukan bosgarren herrialdea da mundu mailan, 500.000 biztanlerekin. Valleta da hemengo hiriburua, eta Europar Batasuneko hiribururik txikiena da. Hizkuntza aldetik, maltera eta ingelesa dira hizkuntza nazionalak, baina biztanleriaren 66% italiara hitz egiteko gai ere bada, 1934ra arte bertako hizkuntza ofiziala izan baitzen. Malterak arabiarra eta feniziera ditu jatorrian, eta urteetan zehar italiararen, sizilieraren eta ingelesaren hainbat mailegu jaso ditu. Alfabeto latindarrez idazten den hizkuntza semitiko bakarra da munduan. Biztanleriaren

**ERRUMANIAKO
MENDIETATIK MALTAKO
HONDARTZETARA EGIN
DUT SALTO; URTEBETE
PASAKO DUT HEMEN**

aldetik, maltarrez gain, kanpotar portzentaje oso altua dago uharte hauetan. Aurtengo datuen arabera, biztanleria osoaren %21. Gehienak Europar Batasunetik datoz; bereziki, Erresuma Batua, Italia edota Frantziatik. Europar Batasunetik at, berriz, Libia, Serbia edota Filipinetako biztanleria da gehien nabarmentzen dena.

Historia luzeko herrialdea

Historiari dagokionez, Mediterraneoan daukan kokapen estrategikoa dela eta, zibilizazio ia guztiak pasa izan dira uharte hauetatik. Gizakiaren lehenengoko aztarnak kristo aurreko 5900. urte ingurura garamatza, Siziliatik iritsitako kolonoetara. Kultura neolitikoa hartako hainbat tenplu megalitikok oraindik ere zutik jarraitzen dute uharteetan; esaterako, kristo aurreko 3600. urte inguruko Hagar Qim-eko tenpluak.

Kristo aurreko 800-700. urteetan zehar, ordea, feniziarrek iritsi, eta haiek in batera haien kultura eta hizkuntza semitikoak ekarri zuten. Feniziarrek Malta puntu estrategiko bezala erabili zuten, bertatik Mediterraneo itsasoan salerosteko. Erromatarrek, ordea, kanporatu egin zituzten kristo aurreko 216. urtean eta Malta Erromatarren udalerririk bilakatu zen. Bizantziar



Our Lady Of Mount Carmel basilika, Maltako Valleta hiriburuan.

Inperioak jarraipena eman zion erromatar inperioari kristo ondorengo IV-XIX. mendeetan, baina 870. urtean Aghlabids musulmanek indarrez hartu zituzten uharteak.

Berrehun urte inguru musulmanen pean egon ondoren, 1091. urtean normandiarrek konkistatu zuten Malta eta birkristautu egin zuten. 1282-1409. urteetan zehar Aragoiko dinastien pean izan ziren irlak, 1409an formalki Aragoiko Erresumaren menpe izan ziren arte. Karlos I.ak 1530ean Maltako erlijio-ordenari eskaini zien, ordea, Malta, zerga sinboliko baten truke. Hauek 1798. urtera arte Maltako agintariak izan ziren, harik eta 1798an Napoleonek uharteak eskuratu zituen arte. Berehala galdu zituen, ordea.

Maltarrek britainiarrei eskatu zieten laguntza frantziarrak kanporatzeko eta Napoleonek bi urtez bakarrik izan zuen boterea bertan. Orduetik, ordea, independentzia lortu beharrean, britainiar kolonia bilakatu zen Malta, eta hala jarraitu zuen, harik eta 1964an independentzia partziala eskuratu zuen arte –Erresuma Batuko monarkiaren barruan mantendu zen–. 1974an, azkenik, errepublika bilakatu

ZIBILIZAZIO IA GUZTIAK PASATU DIRA UHARTE HAUETATIK, DAUKATEN KOKAPEN ESTRATEGIKOAGATIK

zen eta 1979ko martxoaren 31n Erresuma Batuko azken militarrek uharteetatik aldentu ziren. Maltan egun hau Askatasun Eguna bezala bataiatu zuten.

Laburbilduz, uharte hauei historia usaina darie. Bertako kaleek prehistoriako zibilizazioak, feniziarrek, erromatarrak, arabiarrek, espainiarrek, frantziarrak eta britainiarrek jaso izan dituzte, eta maltarrek haien kulturaren, hizkuntzan, janarian, arkitekturan eta izaeran gordetzen dute historia hori guztia.

Urtebete pasako dut bertan eta esan nezake Errumaniako bizipenak barruan daramatzadan arren, Mediterraneoko altxor honetan murgiltzeko irrikaz nagoea jadanik. ■

Trukean oinarritutako kontsumoa

Trukeguna Sarea proiektua jarri du martxan Kutxa Ekoguneak urtarrilaren 7ra arte. Gipuzkoako hamar herrik parte hartuko dute programan; adibidez, Oñatik. Objektuak utzi eta jasotzeko lekua izango da, objektuei beste erabilera bat eman eta kontsumo eredua aldatzeko dinamikak sortuko dituena.

Testua:

Arantzazu Ezkibel Galdos.

Argazkiak:

Ekogunea.

Etorkizun ekologikoago eta berdintasunezkoago baten alde Trukeguna Sarea proiektua jarri dute martxan. Kutxa Ekogunea dago proiektuaren atzean, eta lagun ditu Gipuzkoako hamar herri; tartean, Oñati. Proiektuaren helburua trukean oinarritutako esperientzia eskaintzea da, kontsumo arduratsua eta birziklapena jorratuz.

Urteko sasoiak kontuan hartuta, gainera, hurrek Gabonetan opari moduan jasoko dituzten jolasak berrerabilitakoak izateko aukera erraztuko du programak. Trukearen bidez eman eta jasotzea biak gozagarri direla sentituz eta jostailu berri izate horri garrantzia kenduz. "Era honetan, objektuei bizi berri bat emateko modua da; jostailuek norbere familiari asko eman ondoren, beste haur batzuei beste horrenbeste eskaini diezaieketen altxor txikiak izan daitezke", azaldu du Amaia Otazok, Trukegune programako arduradunak.

Lau urteko esperientzia

Kutxa Ekogunean badute esperientzia horrelako programekin; izan ere, aurtengoa laugarren aldia izango da ekimena martxan jarriko dutena: "Sortzen den dinamika oso polita da, bai Gabonetan jostailuekin eta baita urte osoan zehar bestelako objektuekin ere". Geroz eta erabiltzaile gehiago dituztela azaldu dute; hori horrela, ekimena Gipuzkoara zabaltzea erabaki dute: "Erabaki da eskaintzea gure laguntza udal ezberdinei hau antolatuta dezaten. Azken finean, proiektu nahiko erraza da eta behar izaten dena da hori gauzatzeko



laguntza. Sarean egiteak ere laguntzen du; hau da, hamar udalerrri egotea gutaz gain, horrek ematen die herritarrei ideia bat nola antolatu eta nola parte hartu".

Iaz zabaldu zuten Trukegunea udalerrri ezberdinetara: "Tolosan egin zuten, Gabonetarako, eta, hain ondo joan zen dinamika, urte guztian zehar mantendu dute. Kiroldegian jarri zuten erakusmahaia eta aurten ere jarraituko dute, ez dutelako etenik egin".

Hiru helburu nagusi ditu

Hiru helburu nagusi izango ditu programak: "Alde batetik, hondakinen ikuspegitik materialen berrerabilpenak dakarren onura dago, eta ekonomia zirkularra sustatzeko mesedea; beste alde batetik, Gabonetako kontsumo dinamika aldatzea dago. Aldendu nahi dira *Gabonak* kontzeptua eta opariak erosi eta jasotzeko ideia, eta nahi dena da Gabonei bueltatzea elkartrukatzeko momentua. Lehen, elkartrukatzen ziren objektuak ezagunen artean, baina ikusten dugu badela beste modu bat objektuak trukatzeko nork jasoko duen jakin barik; eta hirugarren mezua haurrei begira egindakoa da: berriaren garrantzia kendu nahi dugu".

"Urte guztian zehar eta, batez ere, Gabonetan nabarmentzen dena da: bizikleta berria duzu? Jostailu berria duzu? Eta gura duguna da *berria* izenondo hori kentzea. Garrantzitsua ez da objektua berria izatea, baizik eta *hau deskubritzen ari zara orain*. Berria izateari garrantzia kentzeaz gain, gura dugu bigarren eskuko objektuak

Ume bat Trukegunetk jostailu bat hartzen.



Umeak jostailu trukea egiten.

NAHI BESTE OBJEKU JASO DAITEZKE; BETIERE, KONTUAN HARTUTA MATERIALA DENONTZAT DELA

demokratizatzea eskala guztietan. Ez pentsatzea horrelako gauzak bakarrik solidarioak izan behar direla zailtasunak dituztenei laguntzeko edo hemendik kanpoko herrialdeetara bidaltzeko; euskaldunok izan behar dugu zirkulazio hori egiten dugunak, eta nabarmendu nahi da duina dela bigarren eskuko jostailu batekin jolastea edo bigarren eskuko jostailu bat oparitzea", nabarmendu du Otazok.

Ekogunea urtarrilaren 7ra arte egongo da udalekin kontaktuan, laguntzen, eta, horren ondoren,

gogoeta propioak egingo dituzte: "Pentsatu beharko da zelako dinamikak sortu diren, lekuak egokiak izan diren... herri batzuetan ausartu dira kalean era librean jartzen; horrek erronka dauka autogestionatutako leku moduan, eta herritarren zibismo aldetik. Beste kasu batzuetan espazio itxietan egin da –kiroldegia, adibidez–, eta horietan ikusi behar dena da ea hango langileek gestionatu dezaketen hori".

Ez utzi arren, jaso

Trukeguna izango da objektuak utzi eta hartzeko gune bat, objektu horiei beste bizitza bat emateko helburuarekin. "Objektuak era librean utzi edo jaso daitezke, tarteko ordainketarik gabe". Utzi edo jaso egin daiteke; hau da, norbaitek etxean duen objektu bat eraman dezake Trukegunera; eta, bestalde, pertsona batek ezer eraman gabe han dagoen zerbait jaso dezake beste bizitza bat emateko: "Bai, eta nabarmendu nahi dugu jendeak uztea baino nahiago dugula jendeak hartzea". Kontuan hartu behar da uzten dugun objektu hori erabiltzeko egoera onean egon behar dela, moldaketarik egin gabe. Eta jasotakoa, aldiz, gure seme-alaben objektuak erabiltzen ditugun bezala tratatzeko konpromisoa hartu behar da.

"Jaso gustuko duzun hori eta gozatu", ez da beharrezkoa Trukegunera zerbait ekartzea bertatik zerbait eramateko. Hartzerakoan, ez dago mugarik, interesatzen zaizun beste har daiteke; betiere, kontuan izanda dagoen materiala guztientzat dela: "Hau da, norbaitek ez ditzala eraman objektu guztiak berak duen elkarte baten bitartez banatzeko jostailuak... horretarako badaude beste bide batzuk", argitu du Otazok.

Aurten, gainera, badute nabarmendu gura duten mezua: "Haurrek poz handia hartzen dute eurek ekarritakoa beste norbaitek jaso duela ikusita". Horregatik, haurrak ere momentuaren partaide egitea aholkatzen dute antolatzaileek: "Ekogunean ikusten dugu, haur batek zerbait utzi duenean, eta egun batzuk barru ikusten badu bere jostailua falta dela, poz handia hartzen duela: nork izango du? gustatuko zitzaion?... galdetuz".

OÑATIKO TRUKEGUNA PLAZAN JARRIKO DUTE, LAZARRAGAKO LORATEGIAREN ALDAMENAN

Egubakoitzetik aurrera, Oñatiko plazan

Oñatiko Udaleko Ingurumen zinegotzi Asier Iraetak azaldu du proiektuaren berri izan zuenean argi izan zuela bat egin behar zutela: "Ikusita gauden garaia zelakoa den, kontzientzian eragin behar dugu kontsumo ereduak aldarazteko. Hori argi neukan". Hori horrela, egokia iruditu zitzaion Oñatiko Ixutu Begixak! taldeko kideekin elkarlanean egitea: "Beste herri batzuetan GBEekin lan egingo dute, eta aukera bat izan daiteke; hala ere, kontsumo gaiekin erlazio zuzenagoa dauka Ixutu Begixak! taldeak. Aukera egokiagoa iruditu zaigu", azaldu du Iraetak.

Oñatiko kasuan, txosna bat erabiliko dute elkartruketo objektuak uzteko gune moduan: "Plazan jarriko dugu, Lazarraga jauregiaren ondoan. Gure asmoa izango litzateke arratsaldeetan, behintzat, zabalik izatea, 17:00etatik 20:00etara, jendeak erabil dezan". Trukeguna zenbat orduz zabalik egongo den batuko den boluntario kopuruaren arabera izango dela nabarmendu du Iraetak.

Momentuz, Gabonen osterara arte egongo da zabalik Trukeguna: "Orain egingo dugun formatuan ez dut uste jarraipena izango duenik; esperientziaren ondoren, gogoeta egin beharko dugu eta ikusi beharko da lekua egokia izan den, nolako baliabideak ditugun... Bestelako eredu batzuk ere hausnartu daitezke, era autonomoan funtzionatzeko, adibidez... Balorazioaren ondoren erabakiko da jarraipena izango duen edo ez".

Gabonen ostean trukatu gabe geratuko diren jostailuak irabazi asmorik gabeko elkarleen artean bideratuko direla azaldu du proiektuko arduradun Otazok.

Otazok gaineratu du ekimenaren hasiera data aurreratu egin dutela, beste urte batzuekin alderatuz: "Azaroaren 16tik 24ra bitarteko astea da Hondakinen Murrizketaren Europako Astea, eta aste horrekin bat egin nahi izan dugu". Hori horrela, hondakinen murrizketa, objektuei beste berrerabilpen bat ematea, objektuei berri izatearen garrantzia kentzea eta elkartruketaren esperientzia partekatzeko tokia izango da Trukeguna Sarea. ■■■

Zer utzi daitekeen

Hauek dira Trukegunean utzi daitezkeen gauzak:

- Liburuak, musika CD originalak...
- Etxetresna elektriko txikiak.
- Elektronika: sakelakoak, irratia, MP3-ak, telebistak...
- Kirok eta aisialdi produktuak.
- Musika tresnak.
- Apaingarriak.
- Jostailuak.

Zer ezin daitekeen utzi

Hauek dira utzi ezin daitezkeen gauzak:

- Arropa -galtzak, gonak, nikiak, soinekoak, jakak, oinetakoak...-.
- Janaria.
- Produktu sanitario eta higienikoak.
- Animalien produktuak.
- Poltsa edo kaxetan antolatuta gabe uzten direnak.
- Espazioan sartzen ez direnak, eta, hortaz, elementutik kanpo geratzen direnak.
- Egoera onean ez daudela antzematen diren objektuak: funtzionamendu, higiene edo egoerari dagokionez.



Ekhone Zumeta oñatiarra.

"Zentzugabekeria honi buelta eman behar diogu"

EKHINE ZUMETA BOLUNTARIOA

Kontsumo ereduarekin eta jasangarritasunarekin arduratuta dabilen herritarra da Zumeta. Proiektuaren berri izan zuenean, parte hartzea erabaki zuen, boluntario.

Nola ezagutu duzu Trukegunea proiektua?

Udaleko Ingurumen zinegotziak azaldu zidan ideia, Ixutu Begixak! proiektuaren lantalde berean gaude eta.

Ezagutzen duzu beste herri batzuetako esperientzia?

Oso ezagunak dira truke proiektuak munduan zehar. Euskal Herriko hainbat herri eta hiritan material eta ezagutzak trukatzeko dira: jostailuak, liburuak, arropa... Donostian, Kristina Eneko parkean, hozkailu bat dago liburuen debaldeko trukea egiteko; Tabakaleran ere sortu dira horrelako beste azpiegitura batzuk; musu-truk diren

bizikleten konponketa tailerrak edo doako etxetresna elektrikoen konponketa zerbitzuak, bestak beste.

Oñatin bertan egon dira horrelako ekimenak; Udaleko ludotekaren programaren barne Gabonetan egiten diren jostailu trukeak, adibidez.

Proiektuko zerk erakartzen zaitu?

Trukean oinarritzen diren sistemak berreskuratzea gizarteak planeta ez suntsitzeko behar duen garapen jasangarria bultzatzeko kontsumo ereduaren ezinbesteko pauso bat da, nire ustez. Gaur egun, gauza berriak erostea besterik ez dugu helburu; liburuak, diskoak, arropak, jostailuak, altzariak... Askotan, erabilpen txiki bat egin eta gero, etxeko bazter batean edo hondakinetan bukatzen dute, gehienetan

haien balio-bizitza agortu gabe. Zentzugabekeria huts honi buelta ematen hasi behar dugu. Etxeko txikiei beste kontsumo bide batzuk erakusteko bide bikaina da, era berean.

Zergatik da interesgarria Oñatin horrelako zerbait egitea?

Oñatin eta leku guztietan ikusten dut interesgarri. Oñatin, gainera, ume asko daude, eta txikitatik kontsumo jasangarria erakusteko aukera paregabea da: patinak behar badituz hurrengo udan kurtsoa egiteko, zergatik ez dut begiratzen jostailuen elkartruke puntuan nire tamainako batzuk ote dauden, beste berri batzuk erosi beharrean? Zergatik ez dut nik patin horien truke aspalditik trastelekuan dudan patinetea ematen? Horrelako gogoetak umeen artean zabaltzea oso interesgarria da. Eurek, gainera, ikastolan, adibidez, trukea naturalki egiten dute beste gauza askorekin: hamaiketakoa, arropa, liburuak, bitxiak... Gurasoak gara, askotan, truke hori ontzat hartzen ez dugunak.

Animatuko zenituzke oñatiarrak sare horretako parte izatera?

Zalantzarik gabe. Eta ez bakarrik parte hartzera, baizik eta trukean jaso eta eman daitezkeen beste material eta ekimen batzuen iradokizunak Udalean aurkeztera.

"ETXEKO TXIKIEI BESTE KONTSUMO-BIDE BATZUK ERAKUSTEKO BIDE BIKAINA DA"



Z BELAUNALDIAREN ALDIZKARIA

Euskaraz



Mugikorretarakol

Bideoak, argazkiak, musika... modu bertikalean! Ez biratu mugikorra; edukiak ZUTik, bertikalean!



Gazteen galak

Musika, youtuberrak, erronkak, elkarrizketak, outfit onenak... Askotariko galak



'IXA' websaila


Formatu bertikalean egin den euskarazko lehen websaila ZUTen bakarrik ikus dezakazu.



Eta zure edukiak!

ZUTen zure bideoak, erronkak, memeak, coverrak... jaso nahi ditugu! Animatu eta bidali!

Deskargatu doan!





NAROA ELORTZA GORROTXATEGI

Zaintza zainduz

Adinean aurrera goazelako, batetik, eta bizitzaren eta lan merkatuaren irakurketa feministak bultzatuta, bestetik, ezin azkenaldian zaintza lanen krisia burutik kendu: adinekoen egoitzen prekarizazioa, etxeko langile ikusezinek sufritzen dituzten *bizi* baldintzak... Emakumeak gehienak, etorkinak asko. Erresidentzietako grebako pankartak jartzen ikusten ditugu batzuk; beste batzuek, aldiz, kalera irteteko aukerarik ere ez dute. Guztiak borrokalariaik, indartsuak, eta zapalduak.

Hain zuzen, zerbitzu publikoan prekarizazioak bideratu du zaintzaren prekarizazioa, eta langileen lan baldintzak eta zerbitzuaren kalitatea gero eta okerrago bihurtu dira. Bide batez, eta oker ez banaiz, Debagoieneko

adinekoen hainbat egoitza azken urteotan pribatizatu egin dituzte.

Erabaki horien ondorioak positiboak direla ezin esan, beste hainbat kasu ezagututa, behintzat –testigantza gordinak erresidentzietako langileek Foru Aldundian emandakoak: <https://labur.eus/egoitzak->.

Hala ere, ez da soilik prekarizatu emakumeon laneko duintasuna edota zerbitzua, guztioi prekarizatu digute gure bizitzaren azken fasea. Maitasunez, duintasunez eta

MAITASUNEZ, DUINTASUNEZ ETA GOXOTASUNEZ BETEA BEHARKO LUKE ZAHARTZAROAK

goxotasunez betea beharko luke zahartzaroak, eta ez fardelak aurrezte lehentasun duen enpresa baten interesen menpekoa.

Zaintzaren krisiari modu komunitario eta kooperatiboan nola egingo diogun aurre; akaso, hori izango da esku artean dugun erroka handienetakoa. Lan horretan eragile sozial anitzak saretzea ezinbestekoa izango zaigu; batez ere, ikusezinak diren horiek parte aktibo bihurtuta. Zuri euskaldunon eraldaketa proiektuek, akaso, ez dituztelako paperik gabekoen beharrak beteko, ezta egunean 22 ordu etxe barruan lanean aritzen diren emakumeen irakurketak jasoko ere. Eta hala, bide batez, gure zapalkuntza propioak aitortzeko aukera izango dugu. ■■■

EZTABAIDA

Lan-astea lau egunera murriztu

Japonian egin duten esperimendu batean, lan-astea lau egunera murriztu dute, eta espero gabeko emaitzak lortu dituzte: produktibitatea eta salmentak %40 igo ziren.



EUSEBIO GONZALEZ
PSIKOLOGOA

"Halako neurriak ezin dira edozein lanetan aplikatu. Emaitza positiboa izan dezake, langilea eraginkortasuna bilatzera eramaten duelako. Dena den, estresa sor dezake, lau egun horietan lan erritmoak gora egitearen eraginez".



GARAZI AZPEITIA
LANGILEA

"Badira asteko lanorduen murrizketaren alde daudenak gurean ere. Batzuen ustez, produktibitatea jaitsiaraziko luke, baina, oraingoan, lan-baldintza hobeei produktibitatean eragin positiboa dutela erakutsi da, beste behin ere".

XIXILI

HELENA AZKARRAGAUZAR



ERREMATEA



MIKEL MUXIKA

'Indarraren arrazoia'-ren indarra

Gizarte *moderno* edota *zibilizatu*-en balio nagusietako bat indar edo mehatxu fisikoaren ordeztaraz edo auziak hitz eginez konpontzea dela esaten da. Oihaneko legea erabili beharrean arrazoitze gaitasuna indartuz elkarrekin konpontzeko kapaz izatea. Honetarako, gizarte bizikidetzaren egokia lortzeko heziketa asko lantzen da, enpatia eta hurkoaren lekuan jartzeko gaitasuna jorratuz.

Baina benetako balioa al da hau? Bestea baino hobea ote? Hala bada, zergatik daude *biolentzia ona* eta *biolentzia txarra*?

Gero eta ohikoagoa da komunikabide eta sare guztietan indarrez edo biolentziaz gizartean egindako akzio *batzuen* justifikazioak agertu eta zabaltzea – Katalunia, Altsasu, Txile, Bolivia...-. Baita *gizartearen ordezkari ei* diren erakundeetan ere.

Honenbestez, ez ote da alderantziz praktikan, non indartsuak duen arrazoi eta ez arrazoidunak indarra?

Ez bada indarraren arrazoia gizartean gailentzen dena, zergatik erabiltzen dute –komunikabideen– indar hau besteak konbentzitu eta arrazoiaren indarra dutela zabaltzen saiatzeko? ■■■

MIKEL ZUMALDE
IKASLEA

"Esperimentu honi ez diot ez hanka ez bururik aurkitzen, betidanik asteko lanegunak bost izan direlako eta guztiak ondo funtzionatu duelako. Gainera, ez zait bidezkoa iruditzen lau egun lan egitea eta bost eguneko soldata kobratzea. Non geratzen da etika?".

ALICIA ETXANIZ
LANGILEA

"Zenbat eta denbora gehiago igaro lanean orduan hobeto irtengo dela uste dute askok, baina denbora murrizteak eraginkortasuna handitzen duela uste dut. Dena den, kontuz ibili behar dela iruditzen zait, karga handiegia izan ez dadin".

Teknologiaren abiadura eta hezibidea



IÑAKI BARRUTIA ARREGI PSIKOLOGO KLINIKOA

Egun, teknologiaren presazko abiadurak talka egiten du eskarmentuz ikasitako edukiak helaraztearen geldotasunarekin, eta horrek hezkuntza prozesuan harmoniarik eza ekartzen du. Familiaren esparruan teknologiaren eboluzioak hezkuntza erritmoa apurtzen du gurasoen paperari dagokionez. Iraganean, migrazioek hirietan eta herri industrializatueta giza saturazioa eragin zuten. Familien landa mundutik hiritar bizimolderako trantsizioak eragin zuen gaitasun funtzionalaren inbertsioa seme-alaben alde. Seme-alabek gurasoak baino lehenago bereganatzen zituzten hiritar bizimolde berriak. Jakina da seme-alabek modu goiztiarrean gurasoen ezagupenak gainditzen dituztenean rolen inbertsioa sortzen dela, eta hortik seme-alaben heziketaren harmoniarik eza. Egungo egoerara itzuliz, esan genezake teknologia garapenaren abiadurak, heziketa harmoniarik ezaz gain, beste ondorio batzuk ere badakartzala; txikien osasun mentalaren kaltea, adibidez.

Haurren psikopatologiari buruzko ikerketek islatzen dute arazo mentalak areagotu egin direla, eta erakundeak ez dira horretaz jabetu. Azkenengo urte hauetan egindako ikerketek nabarmendu dute haurren psikopatologiaren gorakada, eta izurrite dimentsioa ari da hartzen: bost haurretatik batek osasun mental arazoak dauzka, nerabeen depresioak %37ra igo dira eta euren buruaz beste egiten duten 10 eta 14 urte bitartekoen tasa %200 handitu da. Aparteko aipamena merezi du zalantza arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmendu diagnostikoak (TDAH) %50 igo direla. Diagnostiko horretan aldagai garrantzitsu bat kontuan izan behar dugu: farmazia industriaren interesak, hain zuzen ere. Beharbada, zalantza TDAH diagnostikoan sartu genitzake *inperaktibitatea** – asmatutako hitza, tirano txikien portaera izendatzeko–edo tirano txikiak; hau da, mugak eta arauak barneratu gabeko haurrak. Kasu askotan, euren gurasoek ez

dizkiete mugak jartzen eta seme-alaben ahalduneko portaerekin barkabera eta jarrera permisiboarekin jokatzeko dute.

Haurren arazo mentalen gehitzearen arrazoiak askotarikoak dira, baina oso garrantzitsua da gure bizitzaren digitalizazioa, eta horren inguruan gogoeta egitea beharrezkoa da. Gaur egungo umeez estimulu gehiegi eta soberako opari materialak dituzte. Teknologia-umezaina izanda, tabletari begira eszitazio larregi jasaten dituzte eta instant batean sariak jasotzera ohituta daude; gaur egungo umeez aspertzeko betarik ez daukate. Digitalizazioaren prozesuak bizitzeko era sedentarioa eragiten du. Pantaila dirdiratsuan, joko batekin aspertu eta klik batean beste ikuskizun polit bat berehala. Horrez gain, guraso batzuk digitalki tentelduta daude, umeen portaerekin oso permisiboak dira eta umeei uzten diete arauak jartzen. Modu horretan, haurrek eskubidearen zentzu bat

garatzen dute, merezi dutena lortzeko meritua egin barik edo arduratu barik. Bizitzaren digitalizazioak loa galtzea eta nutrizio desorekatua dakar.

Gogora ditzagun haurtzaro osasuntsuaren oinarriak: gurasoak emozionalki eskumenean izatea, arrazoitutako muga garbiak jartzeko prest eta autonomia eta ardura bultzatzen dituztenak. Hondamendi digitala indargabetezko, ez erabili teknologia asperdura konpontzeko, aspertzea delako sormena pizteko unea; bazkalorduetan, jatetxeetan eta autoetan saihestu teknologia erabiltzea, harreman sozialera zuzenduta aukerako proposamenak eskainita. Modu horretan erakutsiko diegu aspertuta daudenean euren burmuinekin funtzionatu dezaten aspertze eran. Itzungi mugikorra ohera joatean, lorik galdu ez dezaten. Gurasoak gara, eta lo egokiak bermatzeko arduradunak; gozatu afari familiarrarekin, arreta galarazi gabe mugikor edo teknologiarekin; mahai jokoetan ibili familia osoa, eta

haur txikiekin alfonbra gainean jolastu beraien interesak jarraituz.

Gurasoek emozionalki eskumenean egon behar dugu, emozioak ezagutzen eta frustrazio eta amorrua kudeatzen erakusteko. Oso garrantzitsua da eurekin emozionalki harremanak izatea, barre egitean, besarkatzean, kili-kili egitean, katamarrean ibiltzean. Ez dugu beldurrik izan behar ezetz esateko, gure hurrek eskatzen dutena behar ez dutenean. Erakutsi behar zaie bereizten nahi dutena eta komeni zaiena. Gure umeei erakutsi behar diegu ardura eta autonomia, frustrazioetatik askorik babestu gabe; bere adinarekin bat doazen etxeko lanak egiten inplikatur gero, autonomoago haziko dira; mugatu presako janaria edo janari industrialia, gu gara-eta euren nutrizioaren arduradunak.

Azkenik, gogoratu honako funtsezko erregela hau: gure hurrek guk egiten duguna ikusita ikasten dutela, ez eurek eginda guk agintzen duguna. Beraz, itzali mugikorra eta begiratu zuen seme-alabei. ■■■

GOZATU AFARI FAMILIARRAREKIN, ARRETA GALARAZI GABE MUGIKOR EDO TEKNOLOGIAREKIN

"74 urte ditut, baina ez daukat erretiroa hartzeko asmorik"

LAURA MENDIZABAL ARKAUZ 2019KO KORTA SARIA IRABAZI DUEN ENPRESARIA

Arabako Foronda eta Zurbano gasolindegietako ugazabak erregai artean eman du bizitza. Senarrarekin batera hasi zen hornitzaile lanak egiten, 1969an. Ordura arte egindako lana aitortzeko, enpresariaren ibilbideari balioa ematen dion Korta saria jaso du berri du, Iñigo Urkullu lehendakariaren eskutik.

Testua: **Mireia Bikuña Madrid**. Argazkiak: **Sea Arabako Enpresak**.

Jaiotzez oñatiarra da, baina adopzioz gasteiztarra. 1948an, 3 urterekin, Gasteizera bizi izatera joan zen. Kontabilitate eta Administrazio ikasketak egin ostean, gurasoekin hasi zen lanean hornigai industrialen eta bizikleten eta ziklomotorren salmentan.

Ostean, 1978an, Fernando Gorbea senarrak eskatuta, erregaien banaketaz arduratzen zen enpresa familiarren hasi zen lanean. 2000. urtea ezkerro, Mendizabal bera da etxeko negozioaren arduradun nagusia, senarraren heriotzaren ostean. Oraindik lanean segitzen du.

Zorionak sariarengatik! Nola baloratzen duzu saria? Zer esanahi du zuretzat?

Asko poztu nauen saria izan da. Bereziki, nirekin gogoratu direlako. Ohorea izan da etxekoaren eta lagunaren aurrean saria jasotzea. Bide luzea egin dugu, eta, hori guztia baloratzen denean, esker onekoa izatea besterik ez zait geratzen.

Korta sariak bizitza profesional luzea eta enpresa-hobekuntzaren alde egindako lana azpimarratzen ditu. Berba potoloak dira horiek.

Bai, hala da. Guretzat sari oso inportantea da. Gurea etxeko negozioa da. Familiakoa. Eta

horregatik guztiagatik baloratzen dugu askoz gehiago lehendakariak eman didan saria.

Lau enpresarik jaso duzue saria. Hautagaiak hiru lurralde historikoetako enpresa-elkarteek, merkataritza-erakundeek edo profesionalen elkargoek proposa zitzaizketen; baita Joxe Mari Kortaren Bidetik fundazioak eta Euskadin egoitza duten enpresek ere. Zure hautagaitza Sea Arabako Enpresak egin du. Horko kide dira zure gasolindegia.

Hori da saria baloratzeko beste alderdietako bat. Gertuko erakunde batek gure lana aitortzea beti da polita. Sea Arabako Enpresak sortu zenetik eurekin egiten dugu lan. Kolaborazio estua daukagu.

74 urte dituzu. Korta saria erretiratzeko aitzakia ona izan daiteke, edo lanean jarraitzeko asmoa daukazu?

Lanean jarraituko dut. Birbilobekin denbora gehiago pasatzeko gogoia daukat, baina oraindik indartsu nago. Lau alaba ditut, eta bederatzi birbiloba. Babestuta sentitzen naiz.

1978an hasi zen erregaiaren eta zure arteko hartu-eman. Bide luzea egin duzue elkarrekin. Une gozoak ala gaziak bizi izan dituzu gehiago?

Urte asko dira, eta une gozoak eta gaziak eduki ditugu. Gaziak eta gogorrak,aldi berean. Adibidez,



Laura Mendizabal, Forondako gasolindegiaeren bulegoan.

Campsarekin lan egiten genuenean une latzak pasa genituen. Monopolio bat zen, eta erregaien banaketaz bizi ginenok arazo handiak genituen gure negozioak askatasunez kudeatzeko. Zorionez, une gogor haietatik bizirik atera ginen. Hortaz, une latzak bizi izan arren, une gozoak ere bizi izan ditut.

Urte hartan hasi zinen Fernando Gorbea senarrarekin lanean, biak elkarrekin. Nola gogoratzen dituzu une haiek?

Apurka-apurka hasi nintzen. Negozioa ezagutu, lan egiteko moduak barneratu... Senarrak gidatzen zuen enpresa, eta ni alboan nengoen, edozertan laguntzeko prest.

Lau alabaren ama zinen, eta, bat-batean, senarrarekin hasi zinen lanean. Aldaketa handia izan zen zuretzat?

Ez handiegia. Ordurako nire gurasoen enpresan nengoen lanean, eta banekien zer zen ama eta langile izatea. Nire gurasoena utzi, eta senarrarekin hasi nintzen. Hortaz, egokitzapen kontua izan zen. Egia da garai hartan ez zela oso ohikoa emakumeak enpresa munduan lanean ikustea. Baina nik, zorionez, etxetik izan nuen lanerako aukera. Nire lagun emakumeek ere lan egiten zuten. Hortaz, niretzat normala zen kontabilitate eta administrazio ikasketak egin ostean lanean jardutea.

Santa Engrazia eta Gamarra gasolindegia izan ziren lehenak. Ostean, Foronda, Zurbano eta Gorbea.

Nolakoak izan ziren hasiera haiek?

Hasiera guztiak dira zailak. Amets guztiak proiektu batean ipintzen dituzunean, egia bilakatu daitezten, lan handia egin behar. Senarrak eta biok hori egin genuen: lan eta lan. Ez dago beste sekreturik. Egia da zorte apur bat ere beharrezkoa dela, baina zortea topatzen ere jakin behar da.

Eta zergatik aukeratu zenuten erregaiaren mundua?

Etxetik zetorkion negozioa senarrari. Bere gurasoek gasolindegia bat eduki zuten. 1930ean zabaldu zuten zerbitzua. Hortaz, senarra gasolina artean jaio eta hazi zen. Noski, gurasoen negozioari jarraipena eman gura izan zion, eta bide horretan dihardugu oraindik.

1981ean, Esergui SA elkarte sortu zuten Gipuzkoako gasolina-saltzaile independente batzuek. Elkarteko kide zarete zuek.

Campsak zuen orduan erregaien salmentaren monopolioa. Baina ikusten genuen Campsa desagertu egingo zela. Monopolioa desagertuko zela, alegia. Hori horrela, gasolina-saltzaileok beste edozein hornitzailei erosteko askatasuna izango genuen. Orduan sortu zuten Esergui SA,

hornitegi libreei hornikuntza ziurtatzeko helburu bakarrarekin. Egun, kooperatiba edo erosketa-zentral izaera izango luke. 1988an, operadore titulua jaso zuen Eserguik. Orduan hasi zen erregaia banatzen. Hasieran, hamasei gasolindegiri. Gu urtebete geroago sartu ginen elkartearen.

Erabaki ona izan zen, orduan?

Bai. Prezioak askatasunez negoziatzeko bidea eman zigun elkarteak. Gure negozioak handitzen eta zabaltzen joateko erabaki onena hartu genuen. Hamasei gasolindegirekin hasi ginen, eta egun, 190 gasolindegia eta 31 gasozentro ditugu. Azken horiek erregaiak gordetzeko biltegiak dira. Handik banatzen da materiala gasolindegietara.

Hasiera batean erregaia hartzeko lekuak ziren guneek ikaragarrizko bilakaera izan dute. Egun, autoak garbitzeko zerbitzua eta supermerkatua edo denda dute gehienek.

Gizartearekin batera egin dugu bidea. Bezeroen eskakizunei erantzuteko beharrak eroan gintuen horra. Erregaia bakarrik saltzen genuenean, bezeroek eskularruak eta olio-latak erosten zituzten. Ostean etorri ziren jatekoak eta edatekoak, eta beste produktu batzuk. Egun, laranjak eta olioia erosi ahal dira gasolindegietan. Kafetegi zerbitzua ere badute askok. Baina, berriro diot, bazkideen beharren arabera egokitu ditugu gure gasolindegia. Arlo honetan birziklatzea ere ezinbestekoa da. 1978an zabaldu genuen Forondako gasolindegia izan zen auto-garbitzeko tunela izan zuen Arabako lehena. Berrikuntza itzela garai hartarako.

Esergui SA Espainiako bosgarren petrolio-enpresa da. Etorkizuna bermatuta dagoela esan daiteke?

Bai. Zalantza barik. Etengabe egokitzen joan behar dugu. Izan ere, energia berriak datoz, eta horiei erantzuten jakin behar dugu. Adibidez, gure gasolindegietako batean elektrizitatea eta gasa hornitzen hasi gara. Etengabeko berrikuntza da gurea. Eta horretan asko laguntzen du gasolindegian dagoen espazioak. Geroz eta zerbitzu gehiago emateko, espazioa beharrezkoa da. Dena den, erregaia egon badago oraindik.

Auto elektrikoa traba bat izan daiteke erregai hornitzaileendako?

Oraingo, ez. Behin eta berriz esaten dute badatorrela, eta egunen batean helduko da. Baina, oraingo, ez da traba edo arrisku bat guretako. Auto elektrikoaren erabilera %100 izateko asko falta dela esango nuke.



Iñigo Urkullu lehendakaria, Laura Mendizabal –Korta sariarekin– eta Arantza Tapia sailburua.

**"1978AN HASI NINTZEN
SENARRAREKIN LANEAN
GASOLINDEGIEN MUNDUAN"**

**"AUTO ELEKTRIKOA ETORRIKO DA,
BAINA ERREGAIA EGON BADAGO
ORAINDIK"**

**"14 URTERA ARTE, OÑATIN
PASATZEN NITUEN UDAK; HAN BIZI
DIRA FAMILIAKOAK ETA LAGUNAK"**

2000. urtean hartu zenuen enpresaren ardura, senarra hil zenean. Lehen lerrotik gehiago sufritzen da?

Sufritzea egokitu zitzaidan bizi behar izan nuen egoerarengatik. Ezusteko heriotzak beti dira gogorrak, baina aurrera begiratu beharrak indarrak ateratzen lagundu zidan. Senarrak markatutako bidetik jo genuen, eta harro nago egin dugunarekin. Asko sufritu genuen, era berean, 2008ko krisiarekin. Orduan ere, bizi izan genuen egoerara moldatu ginen. Zorionez, lau alabak alboan ditut beti, aholkuak ematen. Bik nirekin egiten dute lan.

Jaiotzez oñatiarra zara, baina 3 urterekin joan zinen Gasteizera. Baduzu Oñatiko oroitzapenik?

Bai. Oso txikitan joan nintzen Gasteizera, gurasoen lanak behartuta. Baina 14 urtera arte, Oñatin pasatzen genituen oporrak. Han ditut osaba-izebak, lehengusu-lehengusinak eta lagunak. Oroitzapen politak ditut.

Oñatiko familia ikustera joateko ohiturarik badaukazu?

Oñati eta Gasteiz oso gertu daude, baina nahi baino gutxiago joaten naiz. Alabekin eta birbilobekin joaten naizenean, familia bisitatzeaz gain, Arantzazura joateko ohitura daukagu. Bi lekuak dira oso ederrak. ■■■

Koltxoi on baten bila

ATSEDENA ETA BIZKARREKO MINA



JULEN MURUAMENDIARAZ

KIROPRAKTIKOA

ARGAZKIA: PATRICIA LARA RODRIGUEZ

Bizkarreko mina munduan milioika pertsonari eraso egiten dituen izurria da. Bizitzako uneren batean bizkarreko mina pairatzen du populazioaren %80k. Askotariko kausak izan daitezke, baina guztiek sentrazio bat dute komunean: gaizki lo eginda, mina handitu egiten da.

Ez dago erantzun unibertsalik, eta ez dago gaixo guztientzat ona den koltxoi bat. Gogoan izan, gainera, munduko koltxoi onenak ere ez duela bere ezaugarriengatik eta berak bakarrik bizkarreko minik kentzen. Postura zainzea, mugikortasuna hobetzea, ariketa pertsonalizatuak egitea eta profesionalen esku hartzea ezinbestekoak dira.

Bizkarreko min iturri izan daitezke istripuak, postura txarrak, ordu gehiegi egotea jarrita eta pilatutako estresa. Baita artrosia, osteoporosia, eskoliosia eta halako bizkarrezurreko deformazioak. Lesio ohikoenak izaten dira ornoetatik eratorritako arazoak edo diskoko herniak. Eta min sentrazioa handitzen dute gaueko deskantsu faltak

edo ohean lo egin ezinik bueltaka ibiltzeak eta postura desagokian lo egiteak. Hain zuzen, bizkarreko mina dutenen kexa ohikoena da lo egiteko postura erosorik aurkitu ezinik ibiltzea. Horregatik, okerrago deskantsatzen dute eta denbora laburragoz egiten dute lo.

Oheko koltxoiak deskantsu eraginkorra sustatu behar du, bizkarrezurreko eta gorputzeko gainerako artikulazioen tentsioa gutxitu, horrela mina arinduz.

Sorgin-gurpila sortzen da deskantsu txarraren eta bizkarreko minaren artean; izan ere, deskantsu eskasak bizkarreko mina areagotzen duten arazoak okertzen ditu, eta loa kalitate txarrekoa izatea eragiten du minak.

Koltxoi aproposaren bila

Materialen eta irmotasunaren arabera, askotariko koltxoiak daude. Ezagunenak dira, agian, latexekoak eta biskoelastikoak. Gizartean balorazio txarragoa dute, aldiz, malgukiak dituzten koltxoiak edo finak direnak.

Garrantzitsuena bizkarrezurrearen eta gorputzeko artikulazioen lerrokatzea errespetatuko duen koltxoi aurkitzea da. Horrela, bizkarraren presioa arindu

egingo da. Koltxoiak ez bada behar besteko gogorra edo erresistentea, gorputzak muskuluen erlaxatzea eragotzen duen angelu antinaturala hartuko du.

Koltxoiak aukeratzeko orduan kontuan hartu behar dira baita ere pertsonaren pisua eta lo egiteko modua.

Malgukiak dituen koltxoiak

Koltxoi tradizionalak eta merkeenak dira. Gaur egun erabilienak ez badira ere, egia da azken urteotan asko aurreratu dela horien diseinuan.

Badituzte abantaila batzuk: besteak baino arinagoak dira, eta mugitzeko errazagoak. Gainera, gehiago irauten dute eta deformazioei eusten diete.


Arazo nagusia da gainazala desberdina dela koltxoiaren puntu ezberdinetan. Gainera, gehienetan, inguru lunbarraren okertzea behartzen dute eta belauen atzealdea euskarririk gabe geratzen da.

Latex koltxoiak

Latexa arboletatik eratorritako materiala denez, horiek egiteak, normalean, ez du konposatu kimiko agresiboren beharrik izaten. Onuragarria da alergikoak direnentzat.

Horrez gain, oso erosoak dira eta ematen du hondora

BIZKARREZURRAREN ETA ARTIKULAZIOEN ARTEKO LERROKATZEA ZIURTATU BEHAR DU KOLTXOI ON BATEK



zaitezkeela bertan, baina segituan eskaintzen dute gorputzak behar duen sostengua eta gorputzera moldatzen dira. Hala, pisu handien duten gorputzaren atalak gehiago hondoratzen dira eta arinagoak direnak azalean geratzen dira. Horrek ahalbidetzen du bizkarrezurra zuzen mantentzea.

Eragozpenak ere badituzte, ordea: garestiagoak izateaz gainera, mantenua behar dute. Deformatzea ekiditeko, posizioz aldatu behar dira.

Biskoelastikoak diren koltxoiak

Koltxoi horien materialek memoria izaten dute, eta gorputzaren forma mantendu dezakete.

Irrotasun erdiko koltxoia aukeratzuz gero, gorputzak sostengu osoa izango du, eta ez da malgukidun koltxoiekin gertatzen den moduan espazio hutsik geldituko.

Koltxoi mota horren apar edo espumak gorputz guztia

inguratzen du, eta euskarria eta atsedena eskaini. Aparra kalitate onekoa izatea komeni da; izan ere, batzuei kostatzen zaie memoria hori galtzea, eta posturaz aldatuz gero koltxoiak aurreko posizioaren forma mantentzen du. Zenbat eta kalitate handiagoa, orduan eta denbora laburragoa beharko du koltxoiak postura berrira egokitzeko.

Koltxoi mota horren arazo nagusia da beroari eusteko joera duela, eta jakinekoea da gorputzak fresko egon behar duela deskantsatzeko.

Dena den, badaude material natural bereziak berotasuna horrenbeste mantentzen ez dutenak.

Lo egiteko postura egokiak

Koltxoi gogorra ez da beti hobe. Lehen, gomendatu egiten ziren, baina ikusi da sarri gogorregiak direla bizkarrezurrari lerrokatuta eusteko.

Gora begira lo egiterakoan gertatzen da, bereziki. Koltxoi gogorregia bada, buruak atzera egiten du, lunbar aldea okertu egiten da eta belauen atzealdea sostengurik gabe geratzen da.

Saiatu behar da alde batera edo gora begira lo egiten. Alde batera lo egiten dutenei gomendatzen zaie belauak tolestea eta bular aldera gerturatzea belauen artean kuxin bat jarritz.

Gorantz lo eginez gero, berriz, kuxin bat jarri behar da belauen atzean, sostengua izan dezaten. Beherantz lo egiten dutenek, berriz, zailagoa izango dute mina arintzea; izan ere, postura horrek tentsioa handitzen du.

Koltxoi aproposarekin eta postura onarekin lo egiteak arindu egin beharko luke bizkarreko mina. Dena den, beti izango dira lagungarriak ariketa pertsonalizatuak eta, batez ere, profesional on baten eskuetan jartzea. ■■■

Hilabetez padelaz gozatzen

SANTAMASETAKO PADEL TXAPELKETA

ENEKO AZURMENDI

ARGAZKIAK: E.A.

2016an hasi ziren santamasetako padel txapelketa antolatzen, eta laugarren edizioa hasi berri dute pasa den asteburuan. Aurrez ere egiten zituzten hainbat txapelketa, baina maiztasun jakinik gabe. "2016an, erabaki genuen azarotik abendura jokatzeko txapelketa finko bat, urtero, eta finala santamase egitarauaren barruan jokatzeko", azaldu du Fernando Okiñak, Arrasateko Kirol Elkartearen kideak.

Aurtengoari dagokionez, hamalau bikotek eman dute izena gizonezkoen kategorian, eta mistoan seik. "Emakumezkoekin arazo bat daukagu. Mistoan parte hartzen dute, baina eurek bakarrik ez dute izenik ematen. Ikastaroak ematen ditugu, eta hor ari dira hainbat emakumezko jokatzeko, baina txapelketara ez dira animatzen". 2016an, adibidez, bost bikotek eman zuten izena; 2017an, bi bikotek bakarrik; eta iaiz eta aurretik, ez da bikote bat ere egon emakumezkoetan. "Beraz, datorren urteei begira, animatu gurako genituzke, urtean zehar jokatzeko aritzen direlako".

2016a ezker, urtero banatu izan dute txapelketa hiru kategoriatan. "Gizonezkoetan eta mistoan beti bikote kopuru antzekoa izaten da, eta guk ere

ez dugu gura gehiago izaterik. Izan ere, bi pista bakarrik ditugu eta baliabide aldetik zailagoa izango litzateke bikote kopuru handi bateko txapelketa antolatzea. Beraz, nahiago izaten dugu bailara mailako txapelketa bat egin, hemen inguruko jendearekin eta gertuko giroan", dio Okiñak.

2020tik aurrera, gainera, sanjuanetan beste txapelketa bat antolatzeko asmoa erakutsi du AKEk. Beraz, aurrerantzean bi txapelketa izango lirateke urtean: sanjuanetakoa eta santamasetakoa.

AKEn, ate guztiak zabalik

Gaur-gaurkoz, AKEko padel sailean bost kirolari daude federatuta, hiru gizonezko eta bi emakumezko; ikastaroetan hogeit hamar pertsona inguru ari dira eta federatu barik jokatzeko dutenak 50 inguru dira. Dena den, Okiñak adierazi du interesatuta dagoen edonork ateak zabalik dituela.

"Ikastaroak adin eta maila guztietako jendearendako eskaintzen ditugu, eta interesa duen edonork edukiko du probatzeko aukera".

PADEL IKASTAROAK ESKAITZEN DITU AKE-K MUSAKOLAKO KIROLDEGIAN, ASTEAN BI EGUNETAN

Martitzenetan eta eguenean egiten dituzte ikastaroak, 17:30etik 21:30era, Musakolako kiroldegian. Harremanetarako, Fernando Okiñari deitu, 629 43 87 31 zenbakira.

Modan dagoen kirola

Gaur egun, moda-modan dago padela. Argentinan du jatorria, baina Europan ere asko jokatzeko da. "Espainiako Kirolerako Kontseilu Nagusiak emandako datuen arabera, Espainian lau milioi pertsona baino gehiagok jokatzeko dute padelean. Futbolaren ostean, bigarren kirol praktikatuena da. Euskal Herriari dagokionez, Federazioak dio 20.000 jokalaririk baino gehiago garelako".

Hiru gauza nabarmenduko lituzke Okiñak padelaren gainean: "Alde batetik, oso erraza dela oinarrizko maila lortzea. Segidan hasten zara kirolaz disfrutatzen. Bestetik, fisikoki ez du hainbeste exijitzen, eta adinean luzatu egiten da. 12 urteko jendea ikusten duzu jokatzeko, baina baita 70 urtekoa ere. Azkenik, arlo soziala aipatuko nuke. Bikotekoa jokatzeko da beti, eta horrek asko sozializatzen du, giro oso ona sortzen da gure artean. Lagun talde handi bat sortzen da, azkenean".

Oraingoz, ez da kirol olinpiarra, baina 2024an Parisen jokatzeko dituzten Olinpiar Jokoetan padela egotea dute helburu. ■■■



Laukote bat padel partidu bat jokatzen, Mojategiko pistetan.



Jokalari bat pilota jotzen, taldekidearen begiradapean.



Sakeari erantzun berritan.

Gertatzen ari da

TEKNOLOGIA, ADIKZIO



UNAI SERRANO PSIKOLOGOA
ARGAZKIA: GAELLE MARCEL

Gaur egun maila zientifikoan onartu gabe dagoen terminoa da ziberadikzioa; berria omen delako eta aztertzea falta delako. Horregatik, oraingoz, aproposagoa da teknologia berrien gehiegizko erabileraz hitz egitea ziberadikzioaz hitz egitea baino.

Ikuspuntua ulertzea oso garrantzitsua da, horrela ulertuko baitugu gertatzen ari dena. Arazoa ez da sarearen menpe egoteak ondorio txarrak dakartzala. Arazoa da konektatuta denbora gehiegi egotera mugitzen duen sentimendua, gogoia edo bulkada.

Adibidez, arazoa ez da ohe azpian ezkutatzea, baizik eta ohe azpian ezkutatzera eramaten nauen sentimendua. Egia da momentu batean, ohe azpian dauden galtzerdi zikin eta jostailu galduekin entretenitu naitekeela. Eta gero eta gehiago, izan ere; denborarekin ohe azpian denetik aurkituko dut.

Lehenengo, bizitza erreala

Ordena mantentzea komeni zaigu. Lehenik eta behin, lagun fisikoak zer diren ezagutu behar dut, ondoren beraiekin Internet bidezko kontaktua edukitzeko. Beste adibide bat: lehenengo benetako pertsona batekin maitemintzen banaiz,

ondoren bideoetan ikusiko dudanak ez dit errealitatea distortsionatuko.

Gaur egungo nerabeek duten arazoetako bat horixe da, hain zuzen ere. Maiz, lehen esperientzia sexuala Internet bidezkoa da, eta horrek ez die gizakiok errealitatera egokitzeko berezkoa dugun gaitasuna ondo bizitzen uzten.

Mugak behar dituzte

Mugak jarri behar al zaizkie haurrei mugikorrek, bideo-jokoak edo Internet erabiltzeko orduan? Maiz entzuten duten galdera da, eta harritu egiten nau. Azkenengoz, irratsaio batean egin zidaten.

Erantzuna da: bai. Zalantzarik gabe, mugak jarri behar dira. 18 urte bete arte ezin da gidabaimena lortu, eta ez du inork zalantzan jartzen. Bere garaian, hala erabaki zen, eta bete egiten dugu arau hori. Bada, nire ustez, garaia da erabakitzeko teknologia berriak nola erabili eta mugatu behar diren. Eta ez da haurrei begira bakarrik egin beharreko hausnarketa. Zenbatek hartzen dugu mugikorra eskuan ohetik jaiki bezain laster? Zein funtzio betetzen du jokabide horrek? Nahiz eta familiarekin edo lagunekin egon, zenbat gara mugikorra begiratu gabe egon ezin gaitezkeenak? Haurrek ere badituzte halako jokabideak? Horiek dira gure buruari egin beharreko galderak.

Gainbegiratzea beharrezkoa da

Gauzak gero eta azkarrago aldatzen dira, eta aldaketa horietara egokitzea ezinbestekoa zaigu, adin txikikoak bideratzea gure ardurakoa bada.

Gure gurasoen kezkaten ginen, ez zituztelako gure gatazkak ulertzen. Bada, ez dezagun akats bera egin. Teknologia berriei dagokienez, gazteek erraz asko hartzen digute aurre. Beraz, gaiak lanketa bat eskatzen digu, elkar ez-ulertzeak gatazka iturri izan ez dadin.

Bizitza birtuala esango diot Interneten, bideo-jokoan, mugikorren eta telebistaren munduari. Bizitza erreala betidanik ezagutu duguna izanik, bizitza birtual horrekin egiten dugu topo gaur egun.

Gizarte moduan ez dugunez oraindik afera hori arautu, gehien komeni zaiguna da egoera berri horretara era osasuntsuan egokitzea. Horrek ez du esan nahi bizitza birtuala osasuntsua denik, baizik eta bizitza birtual hori gizarteratua dagoenez komenigarriena dela ahalik eta onura handiena ateratzea.

Beraz, erabili bai, baina mugak jarrita. Bestela esanda, ahalik eta etekin handiena atera behar diogu ahalik eta eragozpen txikienarekin.

14 urteko haur batek sare sozialak erabil ditzake, baina nagusi batek gainbegiratu eta

GURASOOK EREDU IZAN BEHAR DUGU ETA ONDO ULERTU BEHAR DITUGU KOMUNIKAZIO BIRTUALAREN ARAUAK

erabilera ona egiteko gaitasuna adierazten badu. Zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta gertuagokoa beharko du gurasoaren jarraipenak.

Komunikazio arau berriak

Lehenengo, guk ulertu behar dugu ondo nolakoa den Internet bidezko giza komunikazioa edo komunikazio birtuala.

Ezagutzen ditugu aurrez aurreko elkarriketen arauak eta, ez konturatu arren, ondo interpretatzeko gai gara; izan

ere, betidanik erabili ditugu komunikazio arau horiek. Komunikazio birtuala nolakoa den ulertu behar dugu orain.

Zer esanahi du maiuskulekin idazteak? Eta emotikonoak erabiltzeak? Zer adierazten dugu jasotako mezuak erantzuten ez ditugunean? Nola aldatzen da pertsona anonimotasunean? Zein sentimendu eragiten dizkigute bizitza birtualean jasotako hitzek? Eta ze ondorio dute gudan min egiteko helburuarekin beste batek guri

buruz bizitza birtualean esandako guztiek? Eta gu goraiatzeko esandakoek? Nola jokatu sinesgarritasunaren gaiarekin?

Eredu izan behar dugu

Seme-alabak gidatu nahi baditugu, bizitza birtuala ezagutu behar dugu, eta, horrekin batera, helduok eredu izan behar dugu.

- Esnatu eta egiten dugun lehenengo gauza Facebook edo Whatsapp zabaltzea bada eta ezin badugu joera hori aldatu, nola eskatuko diegu seme-alabei berdin ez jokatzeke?

- Gure ardura bada umeeek ondo jatea, txukun jantzita irtetea, eskolara joatea... zergatik ez dugu, bada, beraien mundu birtuala ere gainbegiratuko?

- Egiten duguna garrantzitsua da, baina are garrantzitsuagoa da egin dugun hori egitera mugitu gaituen arrazoia. Ulertu behar dugu hori dela benetako gakoa.

- Kaltegarria da mugak zigor bezala erabiltzea –mugikorra, bideo-jokoa, wifia, eta abar kentzea–, eta, normalean, ez du funtzionatzen.

- Saihestu ezin badugu une oro mugikorra begiratzea, komeni da gure buruari hainbat galdera egitea: zer da bilatzen dudana? Zer da espero dudana? Zer da jaso nahiko nukeen hori? ■■■

Unzueta sagardotegian, txotx aukera urte osoan



VALERIANO IBABE SUKALDEBURUA
IRUDIAK: A.T. ETA J.O.

Gasteizko eskolan ikasketak egin ostean, 28 urterekin jarri nuen martxan, anaia Nestorrekin batera, Unzueta sagardotegia. 20 urteko esperientzia daukagu eta produktu freskoak, bertakoak eta sasoikoak erabiltzen ditugu, kalitate onekoak guztiak, eta bezeroa gustura gelditzea izaten da gure helburua.

Txotxetik sagardoa edateko aukera urte osoan zehar dugu

Aramaioko Unzueta sagardotegian. Maiatzera bitartean izaten da, orokorrean, sagardotegi sasoia, baina, hala ere, gurean hilabete guztietan zehar izaten da aukera sagardotegi menuarekin eta txotxarekin disfrutatzeko.

Ingurune paregabean

Toki lasaian eta naturaz inguratuta daukagu sagardotegia. Bi terraza daukagu: udan erabiltzeko bata, zuhaitzen azpian dagoena; eta negurako bestea,

aterpe eta guzti. Autoak aparkatzeko parkinga daukagu bezeroendako.

Bertako postreak

Sagardotegiko menuaz gain, kartan badaukagu parrilan egindako hainbat plater. Eta postreei dagokienez, etxean egindakoak izaten dira guztiak eta horien artean daukagu hurrengo orriko sagar-gozokia, baita bestelako tartak, flana eta natillak. Jantoki bereziak daukagu eta handienean 70 lagun sar daitezke. ■■■

Unzueta sagardotegia

- **Helbidea:** Zabola bidea z/g, Aramaio
- **Telefonoa:** 945 44 50 95.



UNZUETA SAGARDOTEGIARI ESKER
IRABAZI BI LAGUNENDAKO OTORDUA. HARTU PARTE!



943 25 05 05



kluba@goiena.eus



KLUBA *Jatetxea* [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Sagar-gozokia

Osagaiak

- 5 kilo errege-sagar, bertakoa
- Azukrea
- Ura

Prestaketa

- 1. Sagarrak garbitu, zatitu eta ur apur batekin sutan jarri. Azala mantendu.
- 2. Sagarrak sutan jarri ur apur batekin eta konpota moduko bat egin.
- 3. Konpota puregailutik pasa, masa nahiko fina lortu arte.
- 4. Lortutako masa pisatu eta kilo bakoitzeko 700 gramo azukre gehitu.
- 5. Dena ondo nahastu eta suabe egosten utzi, ordu pare batez.
- 6. Gogortzen hasten denean, molde batera pasa.
- 7. Molde barruan hozten utzi.

Zailtasuna: ● ● ● ● ●

Aurreko zozketako irabazlea:

Jexux Kortabarria Legorburu (Antzuola)

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus

goienakluba[“]
Euskara irabazle, denok irabazle!

Western ukituko oinetakoak

COWBOY BOTAK

AMAIA ARANEGI

IRUDIAK: @IN_LUUK, SMODA

2000. urtea oinetako horien une gorena izan bazen ere, bertsio berri eta askotan dira bueltan. Betiko esentziari eutsiz, cowboy botek kaleak hartu dituzte; honela dio Iratxe Gaztelu estilista oñatiarrak: "Gaur egungo cowboy botek Nueva Yorkeko tendentzia hartu dute, finagoak dira. 2017an berriz tendentzia izaten hasi ziren eta gaur egun kalean ikusten dira".

Koloreei dagokienez, aniztasun handia dago: betiko marroiak, naruzko beltzak, estanpatuak –*animal print*–, zuriak –zailak dira konbinatzeko, baina asko eramaten da oinetakoetan– eta bi kolorekoak; joera hau orain indartsu dagoela azpimarratzen du Iratxek.

Oinetako moldakorra

Momentu eta aukera desberdinetarako aproposak dira cowboy botak; lanerako, jaialdi baterako, egunerokotasunerako... erabili daitezke. "Joko handia ematen dute oinetako hauek. Konbinazioaren arabera, estilo askotariko *look*-ak sortu daitezke: rockeroagoa, festibaleragoa, klasikoagoa.... Gainera, urteko edozein momentutan jarri daitezke, udako egun beroetan izan ezik", dio oñatiarrak.



Cowboy bota gorri-beltzak.



Cowboy botinak.



Cowboy bota ertainak.



Cowboy bota beltzak.

Altuera desberdinak

Hainbat altueratako cowboy botak daude eta, hain zuzen, pertsona bakoitzaren altuera kontuan hartu behar da bota egokia aukeratzeko. "Botinak erabiltzerakoan, irudia estilizatu nahi baduzu, orkatilek bistan geratu behar dute".

Altuera erdiko botak pertsona garaientzat egokiagoak direla azpimarratzen du Iratxek:

"Altuera erdiko edo hanka motzak dituzten pertsonak kontuz ibili behar dute altuera honetako botekin; beharbada, ez diete mesederik egingo".

Bota altuak, aldiz, konbinatzeko orduan errazenak dira, eta edonorentzako aproposak:

"Belaunen aldera geratzen diren botak altuera askotariko pertsonak erabili ditzakete. Estilizatu egiten dute, eta, pertsona txikia bazara takoi apur bat sartuz gero oso ondo geratzen dira".

Look-ak sortzeko orduan, aukera asko eskaintzen ditu oinetako mota horrek. Udaberri garaian, erraza da cowboy botinak soineko edo gona batekin konbinatzea. Lanerako, bakeroak –zango-estuak edo kanpai formakoak–, alkandora bat eta bota beltzak aproposak dira. Eta festarako ere egokitu daitezke. "Praka motzak, kimono bat eta cowboy bota marroiak... jaialdi asko konkistatu dituen *look*-a da hori. Oso ohikoa da gazteak horrela ikustea, erraza da".

Konstante eta fidagarri

IÑIGO ERRASTI

XABI GOROSTIDI

ARGAZKIAK: EDURNE DE LA CALLE ETA X.G.

Autoekiko zaletasuna gogor itsasten den adikzio moduko bat dela diote askok, eta Iñigo Errasti oñatiarraren kasuan ere halaxe da.

"Txikitatik erakarri nau mundu honek, eta nik uste dut bizitza osorako zaletasuna dela".

Auto-krosak, hasteko

Oñatin egindako azken auto-krosean egin zuen debuta, eta, modalitate horretan egindako lehen pausoen ondoren, igoeretan aritzeko maila bazuela ikusi zuen.

"Lehen, legez kanpoko auto-kros ugari egiten ziren: Gizaburuagakoa, Oñatikoa, Atxondokoa, eta abar. Nire lehen esperientzia Oñatiko auto-krosean izan zen; hain justu ere, egin zuten azken edizioan. Seat Panda zahar batekin aritu nintzen, baina emaitza nahiko kaxkarra izan zen. Gainontzeko autoak handiagoak ziren –Opel Astrak, Vectrak...– eta nahi izan zutena egin zuten nirekin".

Baina lehen esperientzia anker hark ez zion lehiatzen jarraitzeko gogorik kendu.

"Ikusita Panda batekin gauzak zail izango nituela, auto handiago baten bila joan nintzen, eta Opel Astra bat erosi nuen. Gizaburuagako auto-krosean erabili nuen

lehendabizikoz, eta hirugarren izan nintzen sailkapen orokorrean. Horrek indarra eman zidan aurrera egiteko".

Motorretatik autoetara buelta

Hainbat auto-kros egin ostean, motorretara pasa zen Errasti. "Gurpilek dituzten gauza guztiak gustatzen zaizkit niri: autoak, motorrak... Hala, hurrengo lehiaketak motor gainera igota egin nituen: gehienbat, enduroko probak, baita motor zeharkaldiak".

Hala ere, bi gurpileko esperientziaren ostean, lau gurpilen deia sentitu zuen berriz. "Betidanik izan nuen igoera batean parte hartzeko ametsa. Eta, halako batean, amets hori tentazio bihurtu zen. Gaur egun daukadan Clio autoa erosi nuen eta igoera batean parte hartzeko oinarritzko moldaketak egin nizkion".

Zazpi urte autoekin lehiatzen

Duela zazpi urte izan zen debuta, 2012ko Udanako igoeran, hain zuzen. Orduetik, zazpi urte egin ditu etenik gabe txapelketetan parte hartzen,

2019AN EUSKADIKO TXAPELDUN IZAN DA RALLYSPRINTEKO 3 MAILAN, PROBA GUZTIETAN PUNTUATUTA

eta ezbehar handirik eduki gabe, gainera. Fidagarritasuna eta konstantzia izan dira bere armak. "50-60 lasterketa artean egin ditut autoarekin: rallyak, igoerak, ralliesprintak... eta behin bakarrik abandonatu dut proba bat. Egia esan, konstantzia eta fidagarritasun horri esker lortu ditut emaitzarik onenak".

Aurten, Euskadiko txapelkun

Erregularitasun horren adibide garbi bat aurten egindako denboraldia da, non ralliesprintetako 3 Mailan Euskadiko txapelkun izatea lortu duen. Txapelketak bost proba ditu eta bertan hiruzpalau auto egoten dira, batez beste, bere kategorian lehiatzen. "Proba pare bat egiteko gogoz hasi genuen denboraldia, baina, azkenean, proba guztiak egin ditugu. Urteko lehena Gabiriako ralliesprinta izan zen, eta gure mailako azkarrenak izatea lortu genuen. Ostean etorri ziren Goierrikoa, Azeitikoa, Aramaiokoa eta Ugaokoa, eta horietan guztietan bigarren geratu gara. Gure mailan badaude gureak baino auto hobea duten aurkariak. Baina probaren baten edo beste kale egin dute, eta guk, ordea, puntuatzea lortu dugu proba guztietan. Eskerrak eman nahi dizkiet orain arteko babesle guztiei, familiari eta, batez ere, nire kopilotuari". ■



Iñigo Errasti, etxeko garaiean, erabilitako dortsalak atzealdean dituela.



Errasti, bihurgunea itxita hartzen.



Clio Sport autoa, gelda, lasterketa bati ekin aurretik.

Olatz

Muruamendiaraz

JONE OLABARRIA

IRUDIAK: OLATZ MURUAMENDIARAZ
ETA IMANOL SORIANO

Txikitatik gustatu izan zaio taula gainean aritzea Olatz Muruamendiaraz gazteari (Bergara, 1999). Abesten eta aktore lanetan dihardu eta, hain zuzen, etorkizun profesionala norabide horretara bideratzeko formakuntzan dabil Madrilen.

Nondik datorkizu zaletasuna?

Bergarako musika eskolan hasi nintzen, 6 urterekin. Kantuan bertan eman nituen lehen pausoak eta musikal ugari egin nituen gazteagoa nintzela:

Miserableak, Olentzero and Co... Ordutik hona, abesten eta antzezten aritu naiz, betidanik.

Nolatan erabaki zenuen profesionalki aritzea?

Gurasoek Arte Dramatikoa ikasteko aukera eskaini zidaten, baina nahiko zaila da plaza bat lortzea. Hala, batxilergoan nengoela jada, prestatzen hasi nintzen Donostian dagoen Marga Altolagirrenen laborategian. Gerora, Madrileren joan nintzen, bertan formatzen jarraitu ahal izateko.

Bertan zaude orain ere...

Bai; lehen urtean, antzezpen musikala egin nuen, Maria Beltran eskolan. Orduan konturatu nintzen gehiago gustatzen zaidala *normal* antzeztea, musikala izan gabe. Aurten, Juan Codina eskolan hasi naiz, eta hiru-lau urterako formakuntza programa egiten nabil.

Madrilek aukera asko eman dizkizu?

Nahiago nuke gurean egon, baina bai, Madrilen aukera gehiago daude bai formatzeko, baita lanerako ere; *casting* gehiago daude, eskolak, ikastaroak...

Taula gainera igotzerakoan, nola sentitzen zara?

Urduri jartzen naiz antzeztera irten aurretik, baina agertokira igo eta lehen pausoa ematean dena pasatzen zait, hazi egiten naiz eta, bereziki, asko disfrutatzen dut, oso sentsazio ona da.

Profesionalki eman dituzu pauso batzuk...

Antezelan eta film labur batzuetan parte hartu dut. Azken lana, esaterako, Durangaldeako Gaztedi programarentzat egin berri dudana sustapen-bideo bat izan da.



Maitasunaren Itsasontzia musikalean.



Gaztedi Durangaldearentzat egindako bideoa.



Antzeteari dagokionez, zer motatako paperak gustatzen zaizkizu?

Denetik lantzea gustatuko litzaidake, baina, bereziki, *gaizto* paperak gustatzen zaizkit. Dena den, orain arte, gehiago aritu naiz pertsonaia *on*-en paperean; ahotsagatik dela esaten didate beti.

Abesteari dagokionez, nolako doinuak gustatzen zaizkizu?


Pop motako abestietan sentitzen naiz ondoen, baina garrantzitsuena eroso sentitzea da. Izan ere, eroso sentitzen banaiz eta gustuko badut, berdin dit estiloak, hizkuntzak...

Sare sozialak erakusleihu dira zure eguneroko lanean?

Egun, oso garrantzitsuak dira, askotan bertatik jartzen dira harremanetan, bertatik etor daitezke aukerak. ■■■



Olatz Muruamendiaraz antzetzen.



Antzezlari bateko irudia.

Marrazkigintza, ofizio

XABIER SAGASTA LACALLE MARRAZKILARIA ETA ARKITEKTOA

AITZIBER ARANBURUZABALA

ARGAZKIAK: XABIER SAGASTA LACALLE

Orain dela zazpi urte, afizio zuen marrazkigintza ofizio bilakatu zuen Xabier Sagasta Lacalle; harrezkero, aldizkarietako, diskoetako eta liburu etako azal asko irudikatu ditu, eta baita askotariko kartel eta bestelako lanetarako ere. Ilustratzailea baino gehiago marrazkilari dela dio.

Arkitektoa eta marrazkilaria

Arrasaten jaio zen, baina, haurra zela, gurasoek Gasteizen lana aurkitu, eta hara bizitzera joan ziren; jaioterriarekin ez du harremana galdu, familia bisitatzea sarritan etortzen zirelako, nahiz eta aitortzen duen Bartzelonan bizi denez gutxiago etortzen dela.

Arkitektura ikasketak egin zituen Donostian, eta, horiek bukatutakoan, Bartzelonako arkitektura estudio batean hasi zen lanean; bi urte egin zituen han, krisiaren eraginez estudioa itxi zuten arte. "Arkitektura Unibertsitatean proiektuetako goi mailako ikasketak egiten hasi nintzen orduan, eta han sartu zitzaidan marrazkigintza modu profesionalagoan garatzeko grina eta animoa. Hasieran, eskuz bakarrik egiten nuen lan, eta, egun, gero eta gehiago ordenagailuarekin ere bai. Pantaila paper bihurtu zenean hasi nintzen bi moduak konbinatuta lanean".

Irudia behar den guztietan

Oso enkargu bariatuak jasotzen ditu. "Ez diot mugarik jartzen irudia non joango den; hau da, egin izan ditut garagardo etiketarako, kamisetarako, eta baita disko, literatura eta testu liburu etarako azalak ere. Hori da, nire ustez, lan honen gauza interesgarrietako bat, lan guztiak ezberdinak direla. Zoritzarrez, alde txarrak ere baditu: batetik, kultura arloko lanbideek dituzten trabak, eta; horrez gain, autonomo izateak dakartzanak ere bai; , orokorrean, nahiko lan-baldintza kaxkarretan ibiltzen gara marrazkigintzan".

Musikazalea da, eta halako lanak oso gustura hartzen ditu: "Ordaindutako lehenengoak disko azaletarako enkarguak izan ziren: Joseba B. Lenoirrek eta Izaki Gardenak taldeak eskatutakoak". Harrezkero, Joseba B. Lenoirrekin lanean jarraitu du eta, besteak beste, Erokomeriak, Cabezafuego, Hilotz, Willis Drummond eta Alex Tellorekin jardun du, eta baita Frantziako artistekin ere. "Bretoieraz abesten duen Brieg Guerverno bakarlariaren

**ALDIZKARIETAKO ETA
ASKOTARIKO DISKO ETA
LIBURU AZALETARAKO
MARRAZKIAK EGITEN
DITU XABIER SAGASTAK**


laugarren diskoaren azala bukatu berri dut, eta baita laster kaleratuko den euskal musika talde batentzako ere".

Komikiak oso gustuko dituen arren, kexu da, gura baino eskaera gutxiago jasotzen direlako: "Horietatik jaio zen nire marrazki zaletasuna, baina lan-aukera gutxiago egoten dira. Ez da gauza bera, nahiz eta nolabaiteko antzekotasuna baduen bukatu berri dudana: iazko Durango Azokako beka irabazi zuen *AtopiaRPG* rol jokorako *Marxialistak* familia marraztu dut".


Arkitektoa den heinean, arlo horretakoak ere egiten ditu. "Gasteizko Udalarentzako hainbat proiektu egin izan ditut, paisajismoa eta ilustrazioa uztartzen dituztenak. Lanbide honetan askotan dituzu lan asko esku artean aldi berean, nahiz eta emaitzak garai ezberdinetan erakutsi gero".

Euskal Herriko merkatuan


Bartzelonan marrazketa eskola asko daude, eta, horregatik, marrazkilari asko bizi dira han; Sagastak, baina, Euskal Herriko egiten ditu lan gehienak. "Han ezagutzen naute gehien eta konplizitate handiena hangoekin sortzen da. Arloko profesional asko dago Katalunian, baina apenas dut gremiokoekin harremanik; egia esan, nahiko bakartia naiz lanean, eta, orokorrean, ofiziala halakoa dela esango nuke". ■■■




Xabier Sagasta Lacalle marrazkilaria irudi berri bat sortzen.



Joseba B. Lenoirren disko baten azala.



Argia aldizkarirako egindako azala.




Brieg Guervenoren disko baten azala.



AtopiaRPG rol jokorako egindako lana.

'Ametsondoa'-n ondo, egia esan



Ametsondoa

Egilea: Peru Magdalena

Argitaratzailea: Elkar

Argitaratze urtea: 2017

Generoa: Fikzioa, ipuinak



TERE IRASTORZA IDAZLEA

Hutsik dauden tarte guztietan bere hitza jarri nahi duela esan liteke. Halakoxea da Peru Magdalenarena hitza, ezagutzen dudana heinean. *Egia esan*, ez ditut bere lan guztiak irakurri, eta ziurrenera, poesiarik idatzi izan ez balu ez nuen bererik ezagutu ere egingo, bere obra –poesia, nobelak, haur literatura...– oparoa izan arren.

Egokitu zitzaidan, baina, Idazle Eskolako saio batean bere *Hutsik* poema liburu aipatu eta goraiatu izana, eta bertako batek Peru Magdalena ezagutzea, eta horren harira eta abar, Idazle Eskolara gonbidatzea. *Nahas-mahasean* egin dut, bada, azken asteotan bere berrirakurketa eta *Argia* poema liburuaz gain, *Ametsondoa* ere irakurri nuen, eta aste honetan, katalogoz kanpo geratu den *Ilania* ere bai. Laburrean idazten duten sortzaileen idaz-molde fragmentarioa, txatal eta atalez atal jositakoak obra luze eta oparoa eragin dezakeela adierazi nahirik gonbidatu

Idazle Eskolara, eta han, jenialtasunez agertu zitzaidun sortzailearen poza, bere liburu guztietan ageri dena.

Sortzailearen arte-molde, literatura-genero, edo ideia eta hizkuntzen mugek beldurtu gabe aurrera egin nahi duen idazle jostari bat erakusten du azalean. Aipatutako liburu guztietan hitzaren eta irudiaren arteko uztardura bera ere asko gustatu zait, *Hutsik* poema hartako zirkuluetatik, *Ametsondoa*-n ageri diren gezietara; edo *Ilania*-ko mundu surrealistik, plast!, azken poema liburu azal zurira, *Argia* bistaritzen duen leiho beltzean zehar. Hutsa betetzen zuten hitz eta irudietatik argiak estaltzen duen belztasunera, argiak zizelkatzen duen kontzeptualitatera.

**IDAZLE ESKOLAN
AGERTU ZITZAIGUN
IDAZLEAREN POZA,
BERE LIBURU
GUZTIETAN AGERI DENA**

Destilatu zentzumenak eta utzi/ utzi honi guztiari barnera sartzen, dio poema baten hasierak, *Argia*-n. Baina argia argitara ekartzea zaila da. Badaki hainbeste irakurleak, hainbeste igarriko zuen Magdalenak, hori eta gehiago ere adierazten du haren aro baten itxiera ekarri duen poema liburu honek: hitz huts, irudi gabe, hitzezko iruditeria eta kontzeptuak ehuntzen dituenak.

Hau guztia eta gehiago gustatu zitzaidan larunbat goizean, Idazle Eskolako saioan, eta, nola ez, egin zuen galderetako batek, nora joaten ote diren *Ilania* bezala, katalogoz kanpo geratzen diren liburuak, ez saldu eta oparitu ezin direnak. PUNTUAN, igarriko zenuten bezala, irakurri ez ditugulako idatzi ditzakegun liburuen sail infinitura iristen direla iruditzen zait edo *Ilania* liburuiko *Ziztanaredlan* horretako alderantzizko mundura... ez baita mundu mutua, argia baizik. Eta irakurri ez dituzun liburuen katalogo infinitu hori hedatzeko, jar zaitetz zu ere idazten, irakurle... sortzea plazera da. ■

Goiena Klubeko azaroko sariak!



Errigorako saskia

Parte hartzeko sariaren izena: Saskia

Parte hartzeko azken eguna: azaroaren 29a

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: kluba@goiena.eus

Whatsapp: KLUBA "sariaren izena"

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indararen dagean (LPD 15/1997) legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zirkuituaren fitxategi automatizatu batera sartuko direla. Datu bilera honen helburua bakarra da indararen dagean sustapena gestioztatzea. Eskubidea zangozuzatu daitezen sarteko, haiek zuzentzeko edo ezarritzeko, heldube honetatik idatzi: kluba@goiena.eus



Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ
CENTRO DE INVESTIGACIONES



Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarra

www.harremendenda.org
Bidezko Merkataritzako produktuak

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Bergarako Udalarri esker

"4kote abesbatza" ikuskizunerako sarrerak ditugu.

Bergara | Seminararioan | Azaroaren 30ean | 19:00etan

Izaskun Murgia Elkarte Lirikoari esker

Zarzuelarako sarrerak ditugu

Arrasate | Amala Antzokia | Azaroaren 29an 20:00etan eta Azaroaren 30ean 19:30ean

Plateruena Kafe Antzokiari esker

"Gatibu" kontzerturako sarrerak ditugu.

Durango | Plateruena Antzokia | Azaroaren 30ean | 20:30ean

PARTE HARTZEKO: AZAROAREN 28AN

Posta elektronikoz: kluba@goiena.eus

Whatsapp: KLUBA "4kote/zarzuela/gatibu"

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indararen dagean (LPD 15/1997) legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zirkuituaren fitxategi automatizatu batera sartuko direla. Datu bilera honen helburua bakarra da indararen dagean sustapena gestioztatzea. Eskubidea zangozuzatu daitezen sarteko, haiek zuzentzeko edo ezarritzeko, heldube honetatik idatzi: kluba@goiena.eus



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



Bazkidetu zaituz 2019ko azarotik aurrera: 15€
Deitu: 943 25 05 05
kluba@goiena.eus

goienakluba

Ikerketa zientifikoaren sorleku

BERGARAKO ERREGE MINTEGIA

MIREIA BIKUÑA MADRIA

ARGAZKIA: GOIENA

Real Seminario Patriotico Bascongado de Bergara izenarekin sortu zuten, 1776an, Bergarako Errege Mintegia. Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen asmoa zen hezkuntzarendako eta ikerketa zientifikoarendako esparru propioa sortzea. Hasierako asmoak eta ostean izandako bilakaera ikusita, helburuak aise bete zirela esan daiteke. Frantzisko Xabier Munibe, Peñafloidako Kondea, izan zen erakundearen bultzatzaile nagusia, eta baita Euskal Herriko Adiskideen Elkarteko presidente ere.

Jesuiten egoitzan

1767an, jesuitak Espainiatik bota zituzten. Bi urte geroago, 1769an, 1593an Oñatitik Bergarara joandako jesuitendako egoitza eman zion Karlos III.a erregeak Euskal Herriko Adiskideen Elkarteari. 1775ean, egoitza nagusi izendatu zuten. Gai klasikoez gain, kimika, mineralogia, fisika, natur zientziak, metalurgia, marrazkia eta musika irakasten hasi ziren Mintegian. Ondorioz, Bergarakoa lehen mailako ikasketa eta ikerketa zentro bihurtu zen Espainian. Atzerriko irakasle eta ikerlari ospetsuak egon ziren, eta fisika eta kimika arloak landu zituzten, bereziki.

Wolframaren isolatzea

1783ko irailaren 28an, Errege Mintegian izandako aurkikuntzarik handiena gertatu zen. Elhuyar anaiek, Juan Josek eta Faustok, wolframa isolatu zuten, lehen aldiz. "Zalantza barik, zientzia-arloan gure herriak inoiz egin duen ekarpenik garrantzitsuen eta unibertsalena izan zen", dio Bergarako Laboratorium museoarene webguneak.

Hala, wolframaren aurkikuntzaz harago, kanpotik ekarritako teknologia berriak ez zion nekazaritzari berrikuntzarik ekarri. Dena den, ikasmolde berriak ekarri zituen, eta Gipuzkoako aitonen eta semeen ikastetxea izan zen.

Gainbehera

1794an, Frantziako gudarosteak Gipuzkoan sartu ziren, eta Mintegia Gasteizera eraman zuten. 1798an, berriro ere eroan zuten Bergarara. Edozelan ere, itzulera hura gainbeheraren hasiera izan zen. 1804an, Estatuak hartu zuen Errege Mintegiaren gidaritzeta eta Real Seminario de Nobles izena ipini zion. Hasierako asmoek markatutako bidetik aldetzen hasita zegoen ordurako.

1822an, bigarren irakaskuntzako unibertsitate bihurtu zuten, eta, urtebete geroago, Fernando VII.a errege zela, Real Seminario de Nobles izendatu zuten berriro ere.



Lanbide Eskola ere bai

Hasierako urteetan izandako loraldia berreskuratu ezinka ibili zen XIX. mendean. Ez zuen hasierako garrantzia eskuratzerik izan. 1845ean, bigarren irakaskuntzako goi mailako institutua izan zen. Ostean, bederatzitik urtean, 1851tik 1860ra, Real Seminario Científico Industrial izena eman zioten, eta Espainiako lehen industria eskola izan zen. 1880an, domingotarrek zuzendutako Lanbide Eskola bihurtu zen. XX. mendean,



JESUITEN EGOITZAN IPINI ZUEN ERREGE MINTEGIA EUSKAL HERRIKO ADISKIDEEN ELKARTEAK, 1776AN

1938tik 1944ra arte, apaizen seminarioa izan zen, eta 1975a ezkerko UNED-Bergararen egoitza nagusia da. "Errege Mintegiak bi mendetan zehar lurraldearen modernizazioa bultzatzea lortu zuen. Talde baten ilusioaren eta lan eskergaren ondorioa izan zen; ideia bikainen eta ahalegin handien ondorengoa", aipatzen da Laboratoriumeko webgunean.

Ondare multzo paregabea

Bergarako Errege Mintegia San Martin plazan dago. Jauregi

etxearen eta Izagirre Moia jauregiak ditu alde bietan, eta udaletxea, parez pare. Eraikina bera altxorra da, eta inguruko beste eraikinekin ondare multzo paregabea osatzen du, bereizgarria eta indar handikoa.

Bere ezaugarri nagusiak dira XIX. mendeko fatxada nagusia, barruan dagoen XVII. mendeko eliza eta Udalak berreskuratu duen bilduma zientifikoa. Elizak monumentu izendapena dauka, eta tresneria zientifikoaren zati handi bat ikusgai dago Laboratoriumen.

Bergararen garapenaren ikur

Errege Mintegiak berak izan duen garrantziaz eta bilakaeraz gain, eraikinak berak Bergararen garapenean izan duen indarra da aipagarria. Kultura eta turismo arloan indar handiena duen elementua da. Herriaren garapenerako ezinbesteko faktorea. Dena den, utzi duen ondare materialarengatik, mugak apurtu ditu: Bergarako Errege Mintegia Gipuzkoako eta Euskal Herriko kultura ondare nagusietako bat da. ■■■

'Spin doctor'-a



MAIALEN ARRATIBEL

Espainiako hauteskunde errepikapenaren errua baten bati bota behar, eta kritika guztien jomuga bihurtu da azken hilabeteotan Pedro Sanchezen kabinete-burua: Ivan Redondo aholkulari politikoko donostiarra. Edurne Begiristain *Berria* egunkariko kazetariak honela deskribatu zuen duela ez asko: "Itzalpeko ahalguztiduna".

Izan ere, Redondok diseinatu du azken hilabeteotan Pedro Sanchezen estrategia goitik behera, eta oraindik ere, haren baimenik gabe Espainiako jarduneko presidentiak ez du urratsik egiten, zentzu politikoan ulertuta, betiere.

Sanchezen itzalpeko *spin doctor* honen lana ez du alderdi politikoen ideologiak gidatzen –kasu honetan, PSOErenak–, ezta alderditik bidali nahi duten mezuaren edukiak ere. Bere babespean duen politikariak irabaztea besterik ez du bilatzen, eta gehienetan, berdin dio lidergo hori nola lortzen duen. Azken batean, mezua sinplifikatzea bilatzen du, hautesleei modu errazean helarazteko. Adibide bat jartzearren, Kataluniako PPko Xavier Garcia Albiolen 2011ko Limpiando Badalona kanpaina xenofoboak Redondoren marka darama. Kanpaina arrazista horrekin,



CREATIVE COMMONS / PMK

baina, Albiolen helburua bete zuten aholkulari donostiarrak: bost zinegotzi izatetik hamaika izatera pasa zen alderdi popularra.

Estatuko politikagintzari begira, politikari eta kazetari askok uste dute berea izan zela hauteskundeak errepikatzeo ideia, eta honenbestez agindu hori defendatzea egokitu zitzaieela ez soilik Sanchezi, baita haren gobernukide guztiei ere. Baina azken egunotan, ikusita

**ASKOK USTE DUTE
IVAN REDONDAREN
IDEIA IZAN ZELA
HAUTESKUNDEAK
ERREPIKATZEARENA**

Unidas Podemosekin koaliziorako akordioa sinatzeko izan duten premia, kontrakoa aldarrikatu dute askok: Redondok bazekiela hauteskundeak errepikatzea ez zela estrategia egokiena, baina PSOEko hainbat goi karguk horretara behartu zutela Sanchez. Redondok, beraz, ez zuen erremediorik izan estrategia horren komunikazio kanpaina ahalik eta sinesgarriena prestatzea baino. Gauzak azkenean ez zaienez espero bezala atera, Redondok oraingoan bai aurre hartu die alderdi sozialistako baroi horiei guztiei: koalizio gobernua bultzatu du.

Ikusteke dago oraindik, proiektu hori aurrera ateratzeko babes bila, Parlamentuko gainontzeko alderdi politikoei begira zein estrategia jarraitzen duen Moncloako ahalguztidunak.

Gauza bat, hala ere, argi gelditu zait niri, behintzat: batetik, mezuarekin ados egon gabe ere, kabinete-buruek gaitasuna eta boterea badaukatela agenda politikoa zein mediatikoa markatzeko. Eta bestetik, bere baitan kontraesanak kudeatzen dakien pertsonak baino ezin dezakeela jardun zalantza etiko asko sortzen dituen lan horretan. ■

Stadia: bideo-jokoak streaming bidez

Google streaming bidezko jokoen merkatuan sartu da proiektu berri honekin. Aste honetan bertan jarri dute martxan zerbitzua eta hileroko harpidetza sistema bidez funtzionatuko du. Hasteko, hamabi bideo-jokokorekin jarri dute martxan, eta laster, gehiago jarriko dituzte.

Googleko ordezkariak azpimarratu dutenez, zerbitzua pixkanaka joango da aukera gehiago eskaintzen, Google Playko aplikazio gehienekin egiten duten antzera.

Aurrerago etorriko diren hobekuntzak

Ordenagailuen kasuan, 2020ra arte itxaron beharko dute erabiltzaileek 4K euskarria, HDR eta Surround 5.1. soinua izateko. Urte amaierarako espero da Stream Connect aukera; horrekin, pantaila bitan banatuta jokatu ahalko da.

Era berean, Crowd Play sistemaren bidez, Youtubetik jokalaria askotako joko bat hasi nahi dutenek ere datorren urtera arte itxaron beharko dute. Oraindik zehazteko dago data.



'Black friday' eguneko eskaintzak, jomugan

Black friday, cyber monday, BEZik gabeko eguna... gero eta ohikoagoak dira teknologiarekin lotutako eskaintza egunak.

Baina azken urteotan, deskontu horien fidagarritasuna zalantzan jarri da eta egun hori iritsi aurretik prezioak igotzen dituztela egotzi diete kontsumitzaile elkarteek.

Eskaintzen fidagarritasuna

Hainbat webgunetan aztertzen dituzte teknologiarekin lotutako produktuen prezio gorabeherak. *Blackfridayindex.com* da horietako bat, eta eurek jakinarazi dute azaroaren 29a hurbiltzen ari den heinean produktu askoren prezioek gora egin dutela –webgunean ikus daiteke grafikoa kategoriaka–. Bestalde, OCUk ohartarazten duenez, eskaintzan egoten diren produktuen %11 bakarrik daude urteko beste garai batzuetan baino merkeagoak.


Saltzaileek, aldiz, diote prezioen igoerek eta jaitsierek merkatuko joerei erantzuten dietela.

Marratz itzazu lauki zurietan falta diren irudiak, dominoak zentzua izan dezan.



Itzala

Zein da Maripurtzilen itzal zuzena?



Hamabikoa

Neska-mutilok ikasgelatik atera eta liburategira doaz sokari helduta...





Keuritz Ventura Mora

Oñati. 2,210 kilo. Azaroaren 14a. Gurasoak: Dorimar eta Kelvison. Argazkian, amarekin.



Enara Bengoa Oianguren

Aretxabaleta. 3,860 kilo. Azaroaren 14a. Gurasoak: Garazi eta Iñigo. Argazkian, ahizpa Maddirekin.



Muhammad Zayyan Ghafoor

Eskoriatza. 3,500 kilo. Azaroaren 13a. Gurasoak: Attia eta Abdul. Argazkian, aitaren besoetan.



Aiur Muñoz Lopez de Vergara

Aramaio. 3 kilo. Azaroaren 11. Gurasoak: Amaia eta Mikel. Argazkian, sehaskan lo.



Beñat Sarriegi Derteano

Oñati. 3,500 kilo. Azaroaren 11. Gurasoak: Leire eta Haritz. Argazkian, neba Mattinen besoetan.



Jaio da!

Eman jaiotzen berri PUNTUAN eta Interneten.

Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz Goienaren goitzara.

Asteheneko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik argitaratuko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

txikitasunetik handi



Landa eta itsasertz garapena

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

